



hiruka

170. zenbakia
2021eko apirila

HISTORIAURREA Arkeologia esperimentalak

Iragana ulertu guran

KAISHOP!

Erosi euskaraz, erosi Getxon!

**APIRILAREN 19TIK
MAIATZAREN 2RA**

**Zatoz Getxoko Euskararen
laguna sareko denda batera,
erosi euskaraz eta oihalezko
poltsa opari!**

***Poltsak agortu arte**

**Zer gura
dozu?**

**Zatoz zure
herriko
dendetara!**

**Anima zaitez
euskaraz egiten
zure herriko
saltokietan!**

PARTE-HARTZAILEAK



 @Kaishop.eus
 @Kaishopeus
 @KaiShopKanpaina



Getxo
bizi ezazu



Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Historiaurrea ulertzeko, esperimentazioa
- 14 Hizkuntzaren zalantza
- 15 Euskarari, atara kontuk!
- 16 Larrubizi
- 17 Zientzia etxeko atarian
- 18 Hirudika: Mende erdia Historiaurrea arakatzeko
- 24 Lehen/orain eta Uribitakora
- 25 Hezkuntza gehigarri berezia
- 32 «Euskararen erabilera erdigunean jarri zuten elkarteak»
- 36 Zinez diot eta Irakurrian
- 37 «Joko Olimpikoak egindako lanaren emaitza dira»
- 38 Argazkilariaren txokoa
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Usategi

6



Historiaurrea ulertzeko: arkeologia esperimental

18



Milaka urtez eskualdean gordetakoak, agerian

32



Euskara elkarteek egindako lanaz hausnartu du Txerra Rodriguezek

37



Iker-Ekaitz Libano parakanoa selekzioko entrenatzailea

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoen, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Julen Nafarrate, Eunat Muruaga, Karlos Aretxabaleta Txapel, Joanes Atxa, Eduardo San Andres, Nerea Falagan, I. A. eta Joseba Santxo.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jasotzen du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza) diruz lagundua.

Pribilegiodunak eta besteok

ENDIKA ALABORT AMONDARAIN Ekonomialaria



Enpresa itxieren hazkundera pairatzen ari gara. Azken kasua Mungiako Alkargo Transformers enpresa izan da, eta kasua hurbiletik ezagutzeko aukera izan dut. 40 langile, 40 familia, kaleratuak izango dira. Hartzekodunen lehiaketan daude, eta ez dute jasoko euren den dirua. Ez da negoziazio errealik egon, eta zorrak guztion artean ordainduko ditugu, Fogasaren bitartez. Enpresariak kostu baxuan zorrak kitatuko ditu, eta bere negozioekin jarraituko du, enpresa talde bat baitu bere kontrolpean.

Bestetik, langile autonomo anitz dugu, egoera ekonomiko latz hauetan agian bankuekin zorpetu dena. Ziurrenik, urtetan mantenduko du zor hori, nahiz eta negozioa atzean utzi duen, porrotaren ostean. Langabezian geratuko diren langileak ere ditugu, alokairuei aurre egin ezinik. Horientzako ez dago hartzekodunen lehiaketarik. Beno, egia esanda, badago modalitate bat: pertsona fisikoentzako hartzekodunen lehiaketa. Baina horretara heltzeko bidea nahiko zaila izan ohi da. Azken finean, pribilegiodun batzuk daude, sozietatean, zerotik berriro hasteko arazorik ez dituztenak, nahiz eta gure lurraldea desindustrializatu; eta, gero, besteok gaude, zorrak kentzeko hil arte itxaron behar dugunok.

Getxon bizitzea nahiko nuke

ARANTZA GUTIERREZ PAZ EHuko irakaslea



Duela 35 urte Donostiatik Getxora etorri nintzen, bizitzera, semeak berton hazi eta hezteara erabaki nuelako. Umeak zirenak gizonak dira gaur, eta haiek ere bizilekua hautatu beharko dute, baina beren erabakia seguru asko ez da nahiarekin bat etorriko. Ez momentuz. Gazteentzat Getxon bizitzea ia ezinezkoa da: Udalak indarrean jarri zituen gazteentzako alokairurako laguntzak izoztuta daude, ez da ezer egin etxe hutsak merkaturatzeko, eta alokairurako parke publikoa sortzea ez dago udal-agintarien proiektuen artean. Zorruak espekulazio-merkantzia izaten jarraitzen du, eta ez dugu ezer ikasi COVID-19ak gure bizitza hankaz gora jarri eta balioen berrikuspenean ekarri arren.

Badakigu etxea ez izateak asko zailtzen duela bizitza independentea izatea. Ez naiz jabetzaz ari, bizileku deitu daitekeen toki duin batez baizik; lan prekario eta «mileuristen» soldatekin hori lortzea ezinezkoa baita.

Amaitzeko, semeak Getxon bizitzea nahiko nukeela esan behar dut. Hala ere, bertan lan egin eta sozializatu arren, ondoko herrira joan behar izan dira bizitzera. Eta pandemiaren arauengatik bakarrik ikus ditzaket lantokian edo kalean. Etxebizitza eskubide subjektibo moduan babestu beharrean, espekulazio-ondarea izaten jarraitzea ahalbidetzen duten politikak dira horren erredunak.

Puntua eta kontrapuntua **Historiaurrea**

Iraganaren balioa

*Piztia erraldoiak,
lanabesak, armak...
300.000 urtez
gordetako aztarnak.
Horiek topatzeko
a zelako lanak!
Batzuk ibili dira
hartara emanak.
Zer balio du, Aritz
gure iraganak?*

**JOSU
ARROYO
IZKOA**
Algorta

*Beste batzuk zaizkigu
kontrara tematu,
gure lurra atera
ta porlana sartu.
Zergatik nahi dugun
ondarea gertu,
buru kamuts horiek
ezin dute ulertu,
historia ezin baita
eurotan neurtu!*

**ARITZ
LANDEJA
TERCENO**
Getxo



Fidel Castro Erandioko hobiratzaile ohia

«Ez dugu naturaltasunez berbarik egiten heriotzaz»



Erretiroa hartu berri du Fidel Castro erandioztarrak, hilerrian 35 urtez lan egin ostean. Bizitzaz eta, batik bat, heriotzaz, egin dugu berba beragaz.

TESTUA: **JULEN NAFARRATE** • ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Askotan esaten da bizitza eta heriotza txanpon bereko alde biak direla; ez dagoela bizitzarik heriotzarik gabe, bata bestea sortzen duela. Horretaz asko daki Fidel Castro erandioztarrak. 35 urtez Erandioko hilerrian ibili da lurperatzaile lanetan, eta, dienez, oraindino heriotzaren gaiak tabu izaten jarraitzen du gurean: «Jendeak misterio handia ikusten dio lurperatzaile lanari, baina lan normala da». Gizartean landu gabeko gaia dela iritzio dio Castrok: «Ez dugu naturaltasunez berbarik egiten heriotzaz, baina apurka-apurka hori aldatzen ari da».

Erretiroa hartu berri du, bizitza osoa hilerrian eman ostean: «Uste nuen faltan botako nuela, baina egia esan, bat ere ez! Hori bai, oso oroitzapen onak gorde ditut». 21 ur-

tegaz hasi zen bertan beharrean: «Ez nuen sekulan zapaldu hilerri bat bertan lanean hasi nintzen arte. Hasiera batean, lotsa ematen zidan aitortzeak horretan egiten nuela lan, baina arin pasatu zitzaidan». Izan ere, aitortu duenez, lanak bazuen bere alde ona ere: «Ez genuen gimnasia beharrik, zulo guztiak aitzur eta palagaz egiten genituen!».

Gaur egun, oster, gorpuak lurperatzea baino, ohikoa goa da erraustea. Hori izango da Castoren hautua ere: «Seme-alabei esan diet zer egin behar duten nire errautsekin: Galizako Corrubedo herrian bota dezatela, nire familiaren sorterrian». Belarra moztu, sasiak garbitu, inguruak atundu... egiteko lasaia da lurperatzailearena, baina batzuetan zaila ere bada: «Gogorrena maite duzun norbait lurperatzea da. Gogoratzen dut 80-90. hamarkadetan gazte asko lurperatu genituela drogen eraginez. Latza izan zen».

Berbaldia ezin izan dugu amaitu Fideleri bere izen-abi-zenengatik galdetu barik. Barrez erantzun digu: «Ez dakizu zenbat arazo ditudan. Jatetxe batera deitzen dudanean erre-berba egiteko pentsatzen dute txantxetan ari naizela». Daborduko esan dezakegu: Fidel Castro elkarriketatu dugu! ◀



Historiaurrea ulertzeko, esperimentazioa



XX. mendearen erdialdetik gaur egunera bitartean, Historiaurreko 70 aztarnategitik gora atzeman dira Uribe Kostan. Horietan, Behe Paleolitotik Neolito-Kalkolitora arteko materialak topatu dira, eta, horien nondik norakoak hobeto ezagutzeko, arkeologia esperimentalean trebatu da Iñaki Libano Edestiaurre taldeko presidentea eta aditua. Horretaz jardun gara oraingoan.

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO**

ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ►



Uribekostarrek daborduko jakin behar-ko lukete Historiaurreko ondarea oso aberatsa dela inguruotan. Ugariak dira, askotarikoak, Abrako kostalde-tik Butroe ibaiaren bokalera bitartean aurkitutako aztarnategi arkeologikoak, aire zabalekoak denak. Izan ere, Barrikako Kurtzia inguruko amildegietako flyschean kalitate handiko silexa dago, eta horrek izugarritzko harri-industria sortu zuen orain dela milaka eta milaka urte inguruotan.

Berbarako, orain gutxi, Erdi edo Goi Paleolitikokoak izan daitezkeen sukurri-zatiak topatu zituzten Sopelako Bareñoko lursailean; gune horretan supermerkatu bat egiteko hasierako obrek hainbat aztarna azaleratu zituztela ohartarazi zuten Maitane Larrea eta Ander Ugarte arkeologo sopoloztarrek.

Ez da lehenengo aldia, baina, mota horretako aurkikuntzak ematen direla inguru horretan: Joseba Rios Garaizar eta Diego Garate arkeologoen 2008an aurkitutako Bareño aztarnategiko parteak da orain aztertzen ari diren lursaila. Hala ere, Sopelako gune hori ez da interesa piztu duen bakarria historiagileen artean. 1955ean Antonio Agirrek egindako aurkikuntza arkeologikoetan oinarrituta, Joxe Migel Barandiaran gerturatu zen eskualdera 1959an, Getxotik Gorrizerrainoko tartera, ingurua xehe-xehe aztertzeko; astebetean, hainbat zundaketa egin zituen. Emaitza: *La estación prehistórica de Kurtzia* lanaren argitalpena; horrek argi utzi zuen zelako garrantzia izan zuen Uribe Kostan Bizkaiko Historiaurrearen ikerketari dagokionez. Hala ere, lan-eremuaren tamainak eta denbora-faltak azterketa sakonagoa egitea eragotzi zioten Barandiarani, eta, haren bidea jarraituta, askotariko ikertzaileak lanean ibili dira eskualdean gure arbasoak zelan bizi izan ziren argitu guran.

Azken hamarkadetan egindako lan horiei guztiei esker, Historiaurreko hainbat arori lotutako 70 aztarnategitik gora atzeman dira Uribe Kostan sakabanatuta, Behe Paleolitotik hasita,

Neolito-Kalkolitara artekoak. Hala, Historiaurreko etapa ia guztien aztarnak aurki daitezke gurean, barbarako: Behe Paleolitoko arrastoak Sopelako Moreaga eta Mendieta zein Barrikako Errementariena aztarnategietan, duela 300.000-150.000 urtekoak. Erdi Paleolitokoak (duela 110.000-30.000 urte) asko dira inguruotan, hala nola Barrikako Kurtzia-mendi, Meñakoz eta Aranbaltza zein Berangoko Maritxuri eremuetan. Goi Paleolitoak ere presentzia nabarmena du eskualdean (duela 30.000-10.000 urte) Berangoko Agirremendin eta Urtubin; Barrikako Aranbaltzan eta Meñakozen; zein Sopelako Iturralde eta Kukululu aztarnategietan. Neolito eta Kalkolitari dagokionez, adierazgarriak dira Sopelako Landaluzen egindako aurkikuntzak, baita Barrikako Muriola, Aranbaltza eta Meñakoz zein Berangoko Urtubi aztarnategietan agertutakoak ere. Azken garaioetako tumuluak eta dolmenak ere ikus daitezke Sopela eta Berango arteko Munarrikolandan, baita Gorlizko Arri-muniaundi inguruan ere.

ARKEOLOGIA ESPERIMENTALA, GAKOA. Edes-tiaurre arkeologia-taldeko presidente Iñaki Libanok arestian aipatutako aztarnategi asko aurkitu eta katalogatu ditu, 40 urtez inguruok goitik behera arakatu ondoren. Gainera, orain bospasei urte, arkeologia esperimentalean trebatu da, dioenez, aztarnategien eta horietan topatutako materialen nondik norakoak eza-gutzeko «garrantzitsua» delako jakitea garai haietan nola egiten zituzten lanabesak. Horretarako, hainbat ikastaro egin ditu, eta, orain, Bizkaian oso jende gutxi jorratzen duen alorra dominatzen du: «Herrialde osoan bizpahiruk baino ez dugu presio eta kolpatze bidezko harri-lanketa egiten».

Dioenez, arkeologia esperimentalaren bidez, aztarnategietan aurkitutako harri-piezak zelan egin eta zertarako erabili ziren jakin daiteke. «Diziplina horren bitartez atzeman ahal izan da zelan lantzen zen harria garai ezberdinetan, eta zelakoa izan den harri-lanketaren eboluzioa denboran». Hala, gaur egun, silexa edo bestelako harri-motak lantzeko hainbat teknika arkaiko ezagutzen da, hala nola zuzeneko perkusio gogorra harrizko kolpekariakaz, zuzeneko perkusio leuna adarrakaz, zeharkako perkusioa, eskuzko presio bidezko erauzketa eta makulua erabilia presio bidezko erauzketa. «Teknika horietako bakoitzak Historiaurreko etapa ezberdinetan identifika eta koka ditzakegun arrastoak uzten ditu pieza litikoetan», Libanok zehaztu duenez. Horri esker, eta baita pieza bakoitzaren tipologia kontutan hartuta ere, aztarnategietan aurkitutako elementuak garai batean edo bestean koka daitezke, datazio erlatiboa deritzona erabilia.

Laster, HIRUKA.EUSen, arkeologia esperimentalaren bidez, gure eskualdeko aztarnategi esanguratsuenetan topatutako Paleolitoko eta Neolitoko harri-lanabesak zelan egin ziren erakusteko bideoak argitaratuko ditugu.

Historiaurrean, orokorrean, lau modu nagusi egon dira harriak lantzeko: 1go modua edo Ol-duvai aldikoa, zaharrena eta oinarritzkoena, Behe Paleolitoan erabiltzen zena; 2. modua edo Acheul aldikoa, aurrekoaren eboluzioa; 3. modua edo Mousteriar aldikoa, Neanderthalek Erdi Paleolitoan garatu zutena; eta 4. modua, *Homo Sapiens*-ak beren-beregi garatutakoa. Azken horiek harriak prestatzen zituzten, modu zehatz batean, harri-puska zapalak atera beharrean, lamina mehe eta zorrotz asko ateratzeko. Harri-lanketa mota horiek guztiak dominatzen ditu Libanok, eta aurkitutako harri-piezen erreplikak egin teko gai da, datozen egunotan HIRUKA.EUS-en argitaratuko ditugun bideoetan ikusi ahal izango duzun moduan. ◀

Iturria: Iñaki Libanok emandako informazioan oinarrituta.

300.000

urte inguru ditu eskualdean topatutako harri-erremintarik zaharrenak; Moreagan aurkitutako aurpegi bakarreko aizkora da hori.

1955-59

urteetan hasi ziren eskualdean Historiaurreari lotutako indusketa-lanak egiten, Jose Antonio Agirre eta Joxe Migel Barandiaranen eskutik. Ordutik, 70 aztarnategitik gora katalogatu dira gurean.



Uribe Kostako aztarnategi esanguratsuak, aroz aro



BEHE PALEOLITOA
3 M-250.000 urte.

1

1 Moreaga

Kuartzitazko errekarrian zizelkatutako aurpegi bakarrek choperra da, duela 300.000 urte ingurukoa. Harriak lantzeko modurik sinpleena –eta zaharrena– da: Olduvai aldikoa; in situ egiten zituzten, haragia eta hezur-muinak batzeko.



2

2 Ander Deuna

Harriak lantzeko Historiaurreko bigarren moduaren erakusgarria da hau, Acheul aldikoa, hain zuzen ere. Aurrekoaren eboluzioa da, eta harriaren aurpegi biak lantzen ziren, lerroon gaineko aurpegi bikoaren moduan.



ERDI PALEOLITOA
250.000-30.000 urte.

3

3 Meñakoz

Neanderthalen garaikoa, mousteriar aldiko silexean landutako lantza-punta da hau, duela 45.000 urte ingurukoa. Harriak lantzeko hirugarren metodoa dugu haxe, levallois metodoaren bitartez zizelkatutakoa.



GOI PALEOLITOA
30.000 urte-10.000 urte.

4

4 Agirremendi

Homo sapiens-ek Paleolitoan garatutako kulturen artean, Gravette aldikoa da lamina hau, duela 24.000 urte ingurukoa. Jaurtitzeko lantza-puntak osatzen zituzten, aurrekoak baino meheagoak eta arinagoak, teknologia laminarraren bitartez.



NEOLITO-KALKOLITO
10.000 urte-3.500 urte.

5

5 Landaluze

Eskistozko aizkora txiki leundua da hau, duela 6.500 urtekoa. Adituen ustez, Munarrikolandako tumuluakaz zerikusia izan dezake, habitat edo aktibitate-gune batean aurkitu baita, parrila moduko errekontza-egitura bigaz batera.

Berango Udal-zerbitzuak**Udal-tramiteak errazteko herritarren txartela ezarriko dute**

Berangoko Udalak zerbitzuen eta erabileren eta kudeaketa errazteko herritarrentzako txartela jarriko du martxan. Baliabide berri honek, udal-zerbitzuetara sartzeko norbere burua identifikatzeko balioko du, hala nola tramiteak egiteko, izen-emateetarako, zozketetarako, udalekue-tan apuntatzeko eta Antzokiko sarrerak erreserbatzeko. Sistema berri hau maiatz aldean egongo da erabilgarri. Horrez gainera, Anabel Landa alkateak iragarri du laster ikasteko gela berriak jarriko dituztela martxan Santa Anan, eta, horiek erabili ahal izateko, herritarrentzako udal-txartel honen bidez erreserbatu ahal izango dela lekua: «Modu horretan, ikasleek jakin ahal izango dute aldez aurretik lekuri dagoen edo ez, besteak beste».

AZUOTAXI ZERBITZUA . Udalerriko 70 urtetik gorako edo mugikortasun-arazoak dituzten pertsonen bideratutako taxi-zerbitzua abiatu du Berangoko Udalak. Hala, udalerriko irisgarritasuna hobetu gura dute, osasun-etxe eta ospitaleetara hurbiltzeko, baita udalerriko banketxe, komertzio, udaletxe eta garraio-publikoen zerbitzuetara joan-etorriak egiteko, besteak beste. ◀

Urduliz Tokiko Enplegu Programa**Lau langabe kontratatuko dituzte peoi lanetarako**

Peoi lanetarako lau pertsona kontratatuko dituzte Urdulizen, 2021eko Tokiko Enplegu Programaren barruan. Eskararak aurkezteko epea apirilaren 30era arte egongo da zabalik, eta interesatuek Uribe Kostako Behargintzako bulegoan aurkeztu beharko dute eskaera. Javier Bilbao Urdulizko alkateak adierazi du programa honegaz lanmerkaturatzea erraztu eta herritarren diru-sarrera bermatu gura dituztela.

Lan deialdi honetan parte hartzeko gutxieneko baldintzak dira langabea izatea, Urdulizen erroldatuta egotea, eta proposatuko diren zereginak egiteko ezintasun funtzionalik ez izatea. Kontratuak sei hilabeteko iraupena izango dutela zehaztu dute. ◀

Getxo Etxebizitzak alokatzeko prozesua**Babes ofizialeko 91 etxebizitza alokatuko dituzte Iturribarrin**

Eusko Jaurlaritzak kudeatuko dituen babes ofizialeko etxebizitzak alokatzea eskuratzeko esleipen-prozesua apirilaren 26ra arte egongo da zabalik.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu denez, Iturribarrin eraiki dituzten 91 etxebizitzetatik hiru logelako lau mugikortasun urri iraunkorra dutenei egokituta daude, eta 98,25 eta 120 metro koadro arteko azalera dute. Gainontzeko 87 etxebizitzetatik, 16 logela bakarrekoak eta 36,73 eta 52,48 metro koadro artekoak dira; 54 etxebizitza bi logelakoak dira, 54,90 eta 69,93 metro koadro artekoak; 16 etxebizitza hiru logelakoak dira, 78,68 eta 89,98 metro koadro artekoak; eta etxebizitza bat lau logelakoa da, 100,38 metro koadroko azalera duena.

Esleipen prozesuan parte hartzeko beharrezkoa izango da Getxon erroldatuta egotea, 2019 urteko zergaldiko diru-sarrera haztatuak 3.000 eta 25.000 euro bitartean daudela egiaztatzea eta Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan-Etxebiden alokairuko

eskatzaile gisa altan egotea Getxon.

Eskaerak barematzeko irizpideei dagokienez, kontutan hartuko diren aspektuak hauek dira: diru-sarrerak, bizikidetzaren unitateko kide kopurua, antzintasuna etxebizitza-eskatzaileen erregistroko inskripzioan eta etxebizitza-premia berezia.

Eskabideak egiteko Etxebidearen eskaera-orria aurkezteko aukera ezberdinak daude: presentzialki Zuzenean-en bulegoan, Bilboko Kale Nagusiaren 85 zenbakian, eskaerak postaz bidalita Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzaren egoitzara, telematikoki Etxebidearen webgunean edo Algorta eta Areetako Herriarrak Artatzeko Bulegoetan.

Onartutako en eta baztertutako en zerrendak, etxebizitza-esleipenak eta itxaron-zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitaratuko dira. ◀

**Juan Andrés Garaizabalen Athletic taldea**

Jose Arrueren 1915eko margolan ezagunetik abiatuta, Antzezaleak Getxoko artisten kolektiboko Juan Andrés Garaizabal irakasleak talde zurigorriari omenaldia egin gura izan dio buztinez egindako figura hauek.

Barrika, Gorliz eta Plentzia Turismoa sustatzeko plana

Butroe ibaiaren itsasadarreko mapa turistikoa osatu dute

Jata-Ondo, Barrika, Gorliz eta Plentziak indarrak elkartu dituzte inguruko mapa turistiko bateratua sortzeko. Udalerrietako hainbat aukera turistiko txertatu dituzte.

Plentziako itsasadarren inguruko toki interesgarrien mapa turistikoa egin dute Plentzia, Barrika eta Gorlizko udalek, Jata-Ondo Landa Garapenerako Elkartegaz batera. Proiektu berri horrek udalerrak helmuga turistiko bakar bateratu gisa aurkezten ditu, bertako zerbitzu eta erakargarritasun turistikoak buruzko informazio zehatzagaz.

2020an, herriotako turismo-bulegoak bisitatu zituzten 23.000 pertsonen motibazio nagusia izan ziren kostaldearekiko interesa eta udalerrien erakargarritasuna. Martxoaren 29an, Plentziako udaletxean egin zuten maparen aurkezpenean nabarmendu zuten, kostaldeaz gain, barrualdea ere dela Uribe Kosta, eta, horregatik, tradizioa, kultura eta gastronomia batzen dituen zerrenda zehatza sortu gura izan dutela.

Gorka Elgezabal Jata-Ondo Landa Garapenerako Elkarteko presidentek adierazi zuen Butroe ibaiaren itsasadarren inguruko eskaintza turistikoaren berri ematea dela helburua. Gaineratu zuenez, teknologia berrietara egokitutako zerbitzua ere da, turismo bulegoetan eskainiko dituzten 10.000 mapez gain, Interneten ere egongo delako eskuragarri. Horretarako, maparen bertsio interaktiboa egin dute, Uribe Kostako turismoko web orrialdean; Gorgliz, Plentzia eta Barrikako turismo-bulegoen webguneetan ere dago eskuragarri.

Roberto Muñoz Barrikako alkateak tresna honen garrantzia azpimarratu zuen, turismo eta ostalaritzaren sektorearentzako eragingarri interesagarria delako, «jendea irizpideakaz etortzea ahalbidetuko du».

Bere aldetik, Gorglizko alkateak, Nagore Utxupik, azaldu zuen baliabide berri horregaz jende guztia ez dela toki berean pilatuko, eta, horrela, bisitariak hobeto banatuko direla herrietako gunetatik.



Hiru udalerrietako alkateak eta Jata-Ondo elkarteko presidentea aurkezpenean.

Jende pilaketak saihestea

«Gida honegaz jende pilaketak ere ekidingo ditugu, bisitariak hobeto banatuko direlako udalerrietatik»

Azkenik, Elixabete Uribarri Plentziako alkateak adierazi zuen ekimena Plentzia Ezagutu turismo-gidagaz bateragarria dela, eta «ostalarientzako garai zail hauetan laguntza bat» suposatuko duela.

PLENTZIA EZAGUTU TURISMO-GIDA. Aste Santua eta ekainera bitartean egiteko hainbat ekintza biltzen dituen gida ere argitaratu du Plentziako Udalak. Bertan, udalerriko eraikin enblematikoak, leku ezagunak, txoko sekretuak, gastronomia eta hainbat plan eta ibilbide biltzen dira. Udal-iturriek azpimarratu dute gida horren helburua dela pandemiaren ondorioz galdu den hiribilduko ekonomia-sarea suspertzen laguntzen duen fluxu-turistikoa berreskuratzea. Gida herriko turismo-bulegoaren webgunean deskargatu daiteke. ◀

Leioa SOS Kurkudiren manifestua

Kurkudi ingurua babesteko adierazpena plazaratu dute

Unibertsitateko eta osasungintzako 40tik gora profesionalak SOS Kurkudiren aldarrikapenak babestu dituzte, eta Kurkudi mendia babesteko eskatu dute.

Kurkudi mendia babesteko herritarren plataformak manifestua plazaratu du, eraiki gura duten kiroldegirik pribatuaren proiektuaren aurka. Hirigintza Osasungarriaren Alde goiburua duen idatziak Leioako domingotarren ordenako komentuaren lurzorua bereziki babestu beharrekoa eta ez-urbanizagarria izaten jarraitzeko eskatzen dute. Horretarako, unibertsitateko eta osasungintzako 40tik gora profesionalen babesa izan dute, tartean EHUKo errektore ohi birena, dekanu batena eta zenbait ikertaldetako arduradunena.

Martxoaren 24an aurkeztu zuten adierazpena, EHUKo Bizkaia Aretoan, Bilbon. Ekitaldian parte hartu zuen Alberto Santo Tomas SOS Kurkudiko kideak, eta haregaz batera izan ziren dokumentuaren alde sinatu duten EHUKo irakasle bi: Ibone Ametzaga, biologoa eta Garapen Iraunkorrari buruzko Masterra-



Manifestua sinatu duten adituak eta SOS Kurkudi plataformako kideak. SOS Kurkudi

Manifestua eta sinatzaileen zerrenda SOS Kurkudi plataformaren webgunean aurki daiteke.

ren zuzendaria; eta Maite Ruiz, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko irakasle eta ECRI ikerkuntza-taldeko kidea.

Sinatzaileek Kurkudi mendia bezalako gune natural batek biodibertsitatean eta pertsonen ongizatean eragin zuzena duela arrazoitu zuten.

Bestalde, Alberto Santo Tomasak adierazi zuen ez dela zilegi Amazonia kontserbatzearen alde egotea, «ez bagara gai geure herriko ingurune naturala zaintzeko». ◀

Leioa DBH eta batxilergorako eraikin berria egingo dute

Leioako institutu berria errealitate izatetik hurbilago dago

Institutu berria egiteko lizitazio prozesua martxan jarri da Leioako DBH eta batxilergoa eraikin batean bateratuta egoteko helburuagaz. Gaur egun, Barandiaran Behekoa eta Barandiaran Goikoa eraikinen artean banatuta dago herriko hezkuntza-eskaintza, baina, proiektu berri horregaz, Udalak eta Eusko Jaurlaritzak eskaintza bateratu gura dute.

Bestalde, ekimen horregaz, Altagakoko ikastolaren jolastokiak 2.000 metro koadro

Udal-arloen, ikastetxeetako ordezkarien eta Gurasoen Elkarleen arteko elkarlanaren emaitza dela azpimarratu dute.

izango dituela ere baieztatu dute udal-iturriek. Lurzoru hori Altaga ikastolaren eta Mesedeetako ikastetxearen artean dago, Udalak bereganatu zuena Aldapabarrenaren hiri-garapenari esker, baita Ordezkaritza Erakunde Nagusien –lehen Eskola Kontseiluak– eta Hezkuntzako zinegotzien lanari esker.

Nabarmendu dute institutua udalerritan kokatzeak hirigintza eta hiri-lurzoruaren garapena herritarren zerbitzura jartzearen adibide bat dela. ◀

GAUR

95,5 milioi euro, enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei pandemiaren ondorioak gaiztuz, enpleguari eusten eta gazteak eta langabetuak kontratatzen laguntzeko.

42 Urduliz eskola, gaitasun digitalen arloko prestakuntzarako zentrorik berritzaileena.

Eup!, Bizkaiko tokiko merkataritzarako atari digitala, abian jarriko da.

BIHAR

Ekintzailetzako nazioarteko zentro bat Bizkaia dorrean, egungo enpresen potentziala indartu eta etorkizunekoak bultzatzeko.

2.000 lanpostu berri Ezkerraldeko eta Meatzaldeko parke teknologikoko 50 enpresa berrietan.

Banda zabala zabaltzea: azken belaunaldiako Internet Bizkaiko azken txokora eramateko.

Hizkuntzaren zalantzategia Eunat Muruaga

A itsatsia eta bere erabilera okerra



Oraingoan *a* itsatsiaren edo organikoaren inguruan arituko gara. Nahiko sinplea ematen badu ere, bere erabilera batzuetan ez da egokia izaten, eta zalantzak sortu ohi dira. Hortaz, hori argitzera joko dugu lerrootan.

Zer da, baina, *a* itsatsia? Bada, hitz batzuek berezkoa dute amaieran *a* letra, hau da, artikulua ez dena; eta esaten da hitz horiek *a* itsatsia dutela. Ez dago esaterik hitz gutxitan eta labur zein hitzek duen *a* itsatsia eta zeinek ez, zerrrenda benetan luzea da eta. Hala ere, zalantzaren aurrean onena da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batura jotzea, horrek markatzen baitu zein den berba bakoitzaren forma euskara baturako.

Dena dela, eta aurretik esan bezala, zalantzak sortu ohi dira erabilerarekin, batez ere, deklinatzean *a* mantendu ala ez erabakitzeke orduan. Berez, zehatza eta argia da euskara batuan *a* bokalaz amaitzen diren hitzei dagokien jokabidea: oro har, *a* hori ez da galtzen atzetik zenbatzaile, adjektibo, erakusle edo horrelakoren bat duenean: eliza ederra (**eliz ederra*), hizkuntza bat (**hizkuntz bat*), gauza asko (**gauz asko*), anaia zaharra (**anai zaharra*)... Deklinatu ere bokalez amaitutakoen modu berean egiten dira. Adibidez: elizara, elizako, elizatik... Salbuespen nagusia pluralean deklinatzean dago, izan ere, deklinabidearen arau morfofonologikoei jarraituta, *a+e* kontrakzioaren eraginez *e* erabili behar da. Esaterako: alaba + -ek = alabek. Eta

Berez, zehatza eta argia da euskara batuan *a* bokalaz amaitzen diren hitzei dagokien jokabidea: oro har, *a* hori ez da galtzen atzetik zenbatzaile, adjektibo, erakusle edo horrelakoren bat duenean.

horren gisara pluraleko beste kasuetan: *hiri-ko elizetan*, *horrelako gauzekin*, *anaiek esan didate*...

Akatsik nabarmenena, ordea, mugagabearekin gertatu ohi da; akats sinplea bezain ohikoa eta hedatua da *a* itsatsia duten hitzak mugagabearen gaizki deklinatzea, *a* hori galduta zehazki. Enpresa hitza erabiliko dugu adibide gisa. Enpresa hitzak berezkoa du bukaerako *a*. Bokal hori berekin darabala erabiltzen da beti, (*enpres hori bezalako formak ez dira erabiltzen*): *enpresa ertaina*, *enpresa hori*, *enpresa bat*, *edozein enpresa*, *hainbat enpresa*... Deklinatu ere, bokalez amaitutakoak bezala deklinatzen da: *zenbait enpresaren jarduera eten dute* (**zenbait enpresen jarduera eten dute*)... Ondorioz, *a* berezkoa duten hitz guztiekin berdin jokatu behar dugu: *zenbait animaliak* (**zenbait animaliek*), *hainbat pertsonak* (**hainbat pertsonak*); *zenbait kulturari* (**zenbait kulturei*)...

Bestalde, kontuz pluralaren eta mugagabearen arteko aldearekin: *Zazpi enpresaren diru-kontuak aztertu dituzte* (zazpi izan dira diru-kontuak aztertu dizkieten enpresak; nahiz eta gehiago dauden); *Zazpi enpresen diru-kontuak blokeatu dituzte* (lehendik aipatutakoak edo ezagunak)... ◀

19, astelehena	20, martitzena	21, eguaztena	22, eguena	24, zapatua
ATARAMIÑEREN Zaldi Zoro liburuaren aurkezpena 19:00 (Villamonte K.E.)	ZALDIBAR, zona cero liburuaren aurkezpena (Ahoztar Zelaieta) 19:00 Abian	ARROZ UREZ liburuaren aurkezpena (Mikel Antzarekin) 19:00 (Villamonte K.E.)	II. IPUIN LEIHAKETA iaz aurkeztutakoak irakurgai! 18:30 Abian	ITZAL ANTZERKIA Tailerra 12:00 Abian sarrera: 5€

[instagram.com/abiankulturelkartea](https://www.instagram.com/abiankulturelkartea)

ABIAN
 Bidebarn 2, behea

[facebook.com/abiankulturelkartea](https://www.facebook.com/abiankulturelkartea)

Euskarari, atara kontuk! Joanes Atxa Olaiz

Gure hizkerak lau, gerturatu eta hamalau



Ba al zenekien gure eskualdean, Uribe Kostan, euskara bereizgarria dugula? Askotan, urrun sentitzen ditugu herri hizkerak, baina, geurea den eskualdeko hizkera berezkoa gertuagotik bizi eta gozatzeko asmoz, atal honi ekin diot.

Ozeano Barean galdutako irla bakar-ti batean zuhaitz bat lurrera eroriko balitz, zaratarik egingo luke? Norbaitek entzungo luke? Ez da galdera berria, inolaz ere. Budismoak aspaldi planteatzen zuen hausnarketa hau, eta, atal honetan, oraindik erori gabe dagoen zuhaitz sendo baten inguruan mintzatzen saiatuko naiz; bai, Uribe Kostako hizkeraren inguruan. Har diezaiozun haria gure gaiari: zeri buruz ari gara *hizkera* diogunean?

Euskaldunon herri honek lagun adina mintzo batzen ditu ezker eta eskuin. Ohituta gaudela Euskal Herriko hamaika ertzetatik, festarik festa, gure hizkuntzaren barne aldakortasunaz gozatzera: Lotu barik!, Ttak!, Prefosta! eta, zelan ez, Kala kalata. Bost dialekto nagusi ditugu ekialdetik mendebaldera, ezin ezagunago ditugun euskalkiak: Zuberotarra, Nafar-Lapurterra, Goi-Nafarrera, Erdialdekoa (Gipuzkera) eta Mendebaldekoa (Bizkaiera).

Dialektoak eskualde eta herri bakoitzeko hizkera zehatzak multzokatuz lortzen dira. Bai, hizkeren arteko ezaugarri komunek erakitzen dituzte dialektoak eta askotan entzuten ditugu «ene... Ondarrutarrek bai berbeta polita» edo «Iparraldeko hizkera bai goxoa!» bezalakoak. Baina, aizu! Gure bizilekuak ere



Egunero erabiltzen ditugun berbei gure hizkeren barnean merezi duten lekua egingo diegu. Gure hizkerak osatzen duten baso hostotsu eta loratu honetan barneratu nahi?

Ilustrazioa: sailkapena K. Zuazo eta U. Goiti-rena; irudia A. Olaiz-ena.

badu bere hizkera polit eta goxoa: Uribe Kostako hizkera. Eta non kokatzen da gure hizkera geografikoki? Mendebaldeko euskalkiaren barnean kokatzeaz gain, eremu zehatz edo zurruntan mugatzeko nahiak komeriak ekar diezazkiguke. Ezaugarri bateratzaile batzuek, Bizkaiko iparraldeko eremuekin berdintzen dute gurea: taberna hitzari, **taberne** esaten diogu Uribe Kosta osoan, baina baita Loioan, Laukizen, Gatikan, Maruri-Jataben eta Mungiako auzoren batean ere. Aldakortasuna ekialderantz mugitzean gertatzen da: Sondikan edo Zamudion **tabernea**; harago, Lezaman edo Meñakan, **tabernia**; eta urrunago, Fruizen edo Bakion, **tabernie**.

Oskorrik Arrietako, Emerandoko eta beste hainbat auzoetako espezialitateak zerrendatzen zituen bezala, guk ere hizkuntza berezitasunak zerrenda genitzake auzoz auzo. Atal honetan, ordea, hainbeste urtez erori gabe iraun duen gure zuhaitz sendoa ureztatzeaz gain, bizileku ditugun herrietan eman diren eta ematen diren hizkuntza berezitasunen fruituak ere jasoko ditugu. Baratzeko jakiei jartzen dizkiegun izenez hitz egingo dugu, baina, herri hizkerengandik ikasteko dugun bezala, egunero erabiltzen ditugun berbei ere gure hizkeretan merezi duten lekua egingo diegu. ◀

hiruka

Zu zara giltza!

Egunero abentura ezin ederragoan murgiltzen gara euskal prentsa egiten dugunok. Bidala horretan ezinbesteko lagun zaitugu zu, euskaraz bizi, euskaraz arnastu, euskaraz pentsatu gura duzun hori. Izan zaituz gure bidalde, izan zaituz HIRUKALagun!

Abentura honetako kiდე izateko: administrazioa@hiruka.eus



eus
prentsa
euskaraz
pentsa
euskara
prentsa

Larrubizi Karlos Aretxabaleta *Txapel*

Arrisku-taldea

Nahiz eta musukoak ez didan uzten bere bisaia ikusten, gure begiek topo egitean barre egin diogu elkarri. Konplizitate keinu minimoaren zain egon naiz, eta pikaro begirada huraxe agertu den orduan, ipurdia oratu eta ondo estututa nigana hurbildu dut.



Kanpaikaden kuartoak komunetik entzuten dira, baina ni, gu, okupatuta gaude komun-ontzi baten gainean. Dagoeneko musukoak lurrean daude, eta nire arnasketa eszitatua, estasiatua, helarazi diot nire mingainak bere belarriekin bat egin duenean.

Bat!! Elkarteko egongelatik kanpaikaden hotsa datorkigu, eta lagun guztien harrabotsa ere bai. Bi!! Bere zakilak bat egin du nire alua-
rekin, eta barruko berotasunak beste mundu paralelo batera eraman nau. Hiru!! Su eta gar ari gara, eta nire ipurdiak talka egiten du bere izterren kontra, gure larruek komunetako isiltasuna urratzen dute txalaparta melodiko bat sortuz. Lau!! Mutikoak esku luzea du, eta oso-osoan badaki zelan asebate ondokoaren sexu-gosea; nire motxina eztiki ukitzeko aukera ere badu, piano-jolea balitz bezala, izan ere, teklarekin bikain asmatu du. Hura melodía. Bost!! Komun-ontziak izugarritzko zarata ateratzen du, eta gure intziriak ostentzen dira zarata horrekin, baina berdin digu, apurtuko balitz ere, guri bost. Sei!! Nire titiburuak miazkatzen ditu mutikoak, eta dagoeneko estasira helduko naizela iruditzen zait, baina, ez, barruan dudana itsasoko olatu bat besterik ez da.

Zazpi!! Gorputza minduta daukat, gartsu, postura berean ibiltzeagatik; arin batean altxatu egin gara eta atearen kontra jarri naiz. Zortzi!! Bere esku finek aldaketatik inguratu

Euskara irakaslea
izateaz gainera,
idaztea biziki
maite du *Txapelek*.
Hasiera batean,
poesia-lanak egiteari
ekin zion, baina,
ondoren, kontakizun
erotikoak idazten
hasi zen. Ondoko
lerrootan atzemango
zenutenez, horien
pasarteak irakurri
ahal izango dituzue
orain orriotan; goza
ezazue!

naute, eta istant batez ahaztuta neukan berotasun hori barruan sentitu dut berriro ere. Bederatzi!! Nire hirurogei urteko esku arrailduek ateari irmo eusten diote, eta gaztea atzean dut, jo eta su, dibertitzen; hala ere, noizbait bere ezpainak sentitu ditut, gozoki, maitekor, nire lepo erdian. Hamar!! Istant batez ere, bere bizarra nire lepoa zeharkatzen sentitu dut, lepoa, aldakak, ipurdia, uzkia, alura heldu arte. Han ez da koldartu eta leunki miazkatu dit alu hezea, arrosa petaloak musukatuko balitu bezala ni estasira heldu arte. Hamaika!!

Jarraian bere gainean jarri naiz, gozamen uneari alde egiten ez uzteko, eta azken kartutxoak erretzeko prest nagoela argi gera dakion «lorezainari». Esan dezatela bada, bolbora bustia duen magnum-a naizela. Mutikoa intzirika hasi da, gutxi falta zaio, eta bere zakila inoizkorik gogorren sentitzen dut nire barruan, azken astinaldiak ematen. Ni ere heltzear nago, zama guztia katigatuta daukat, hotz naiz, bero ere bai, baina ez zait ezer falta; bat, bi, hiru... badator olatua, badator tsunamia, badator!

Hamabi!! Suziriak entzun dira nire baitan, eta itzelezko garrasi batek urratu du komuneko isiltasuna. Haatik, bat egin du nire oihuak kaleko suziriekin ere. Elkarri besarkatu diogu, baita urte berri on elkarri opatu ere. Horrelakoak izango balira urte amaiera guztiak... Ongi etorri 2021!



%30 EKO **DESKONTUA**
BETAURREKO
GUZTIETAN

30% dto. en todas las gafas graduadas

Kontsultatu baldintzak denden / Consulta condiciones en tienda



**General
Optica**

Campus de Bizkaia UPV/EHU planta baja
Edif. Facultad Ciencias Sociales y de la Comunicación
LEIOA T. 946 05 16 30

Mayor, 10 (Las Arenas)
GETXO
T. 944 80 10 17

Telletxe, 7
GETXO
T. 944 60 13 90

Zientzia etxeko atarian Eduardo San Andres

Isambard Kingdom Brunel: ahaztutako aitzindari bat



«Gaur egungo gazteek luxua besterik ez dute maite. Lotsagabeak dira, autoritatea mespresatzen dute, ez dituzte nagusiak errespetatzen eta kuxkuxeatzen dabilta lanean egon beharko litzatekeenean», esan zuen Sokrates filosofo greziarrak, duela 2.400 urte inguru.

Itxuraz itzelezko egunerokotasuna daukan esaldi hau, orain dela 2.400 urte inguru esan zuen Sokrates filosofo greziarrak. Hala da, historian zehar belaunaldi orok pentsatu du hurrengo belaunaldia euren baino okerragoa dela, gizartea etengabe narritzen delarik. Kontua, ordea, ezberdina da. Iza-tez, belaunaldi bakoitzak aurrekoarekiko ezberdinak diren ekintzak eta pentsaerak eduki ezean, kobazuloetan jarraituko genuke bizitzen!

Hau ukaezina izanik, egia izaten da ere gazteen ustetan iraultzailea den zeozer aitzindariaren bat eduki dezakeela historian. Izan ere, berritzat hartzen ditugun hainbat ideia ez dira horren berriak.

Gaur egun, berrikuntzaren arketipo bat Elon Musk enpresari hegoafrikarra da. PayPal, Tesla auto elektrikoak, SpaceX edo Hyperloop garraio sistema iraultzailearen sortzailearen ekarpenen garrantzia ez dut orain zalantzan ipiniko, baina beste ekintzaile baten lana erakuslehoan kokatu nahi dut: Isambard Kingdom Brunel.

Marc Isambard Brunel erlojugile baten semea zen Frantzian. Behin euren etxera Sophie Kingdom neska ingelesa joan zen gonbidatuta frantsesa ikastera. Marc eta Sophie segituan maitemindu ziren. Frantziar iraultza zela eta, Marc eta Sophie Estatu Batuetara ihes egin



Isambard Kindon Brunel ingeniaria

Garaiko hainbat arazoei erantzun berriztatzaileak eman zituen, eta ingeniariatzako lorpen askotan aitzindaria izan zen. Great Western Railway sortzeagatik da ezaguna, batez ere.

behar izan zuten, eta geroago Ingalaterrara joan ziren. Dagoeneko Marc ingeniaria zen, eta bertan industria iraultza ahalbide-tuko zituen hainbat teknologia garatu zituen, maki-na industrialak asmatu zituela.

Marc eta Sophie seme bat eduki zuten 1806.urtean, Isambard Kingdom, eta, handik gutxira, mutikoaren gaitasun harrigarria sumatu zutenean, aitaren ardurapean geratu zen bere heziketa, matematikan eta zientzian murgildu zuelarik. Aitak eta semeak urteak eman zituzten elkarrekin ingeniari-tza lanetan, eta Isambarden ekarpen harrigarriak etorkizuneko mundua eraikitzen hasi ziren.

Isambardek Thames ibaiaren azpitik tren igarotzeko tunel bat diseinatu eta sortu zuen estreinako aldiz; horretaz gain, amildegietatik gainetik igarotzen zituen zubi iraultzaileak sortu zituen. Hau guztia garraio publikoarentzako funtsezko bultzakada izan zen.

Atlantikoa zeharkatu zuen lehendabiziko helizez mugitutako altzairuzko itsasontzia ere sortu zuen. Eta agian harrigarriena, tren atmosferikoa, hutsezko ponpa batzuk eragindako tren bat ere asmatu zuen. Isambard ameslaria 1859. urtean Londonen hil zen.

Oharra: ez dut uste Platon, Sokratesen ikaslea, tipo ergela izan zenik. ◀

GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

ARANTZA ETXEBARRIA
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Mende erdi bat Historiaurrea arakatzen

Orriotan ikus daitezkeen irudiak Iñaki Libano Edestiaurre arkeologia-taldeko presidenteak utzitakoak dira. Horietan, azkenengo hamarkadetan Uribe Kostan atzemandako Historiaurreko aztarnategietan topatutako askotariko harri-piezak ageri dira, baita arkeologia esperimentalaren bitartez landutako hainbat lanabes ere. Libanok gogoratu duenez, eskualdean katalogatutako aztarnategi asko 1979an Jose de Saratxaga adituagaz egindako azterketa-bisualen ondorio dira; aurkitutako material guztia Bilboko Arkeologi Museoan dago gaur egun.



Aztarnategietan aurkitutakoak Bilboko Arkeologi Museoa daude 2011tik.

50ko hamarkadaren amaieran egindako ikerketek eskualdeko potentziala baieztatu ondoren, askotariko zundaketak eta indusketak egin dira inguruotan azken hamarkadetan. Atzemandako aztarnategietatik, garrantzitsuenak izan zitezkeenak ikertzeari ekin zioten sistematikoki, eta aurkitutakoa museora bidali dute aztertzeko.





Uribe Kostan 70 arkeologia-gune atzeman dira, eta egunez egun kopurua handituz doa.

Iñaki Libanok eta beste hainbat pertsona, modu altruistan, egindako lanei esker, Historiaurreari lotutako 70 arkeologia-gune atzeman dira eskualdean. Libanok dioenez, 80ko hamarkadatik 2011ra arte egindako ikuskatzeen emaitza izan da hori, etorkizunean Uribe Kostako Historiaurrearen nondik norakoak ikertzeko baliagarria izan daitezkeen aztarnategien berri izateko.







Kortiñe, erromatarren garaikoa.

Behe Paleolitotik hasita, Historiaurreko garai guztien aztarnak aurkitu dira Uribe Kostako aztarnategietan. Horrez gainera, erromatarren garaiko lekukotasunak ere atzeman dira gurean; horren adibidea dugu Getxoko Kortiñe inguruan topatutako aztarnategia, hilerriaren ondoan. 1997an, urbanizazio-lanak egiten ari zirela, *terra sigillata* zeramika arrastoak topatu zituzten, besteak beste. Segituan egindako ikerketa-lanek ondorioztatu zuten, testuingurua kontutan hartuta, erromatarren garaiko familia baten burdinola txiki baten kokalekua izan zitekeela hori.

Lehen/Orain **Arriluze**



Uribitakora



TESTUA
Iñigo Kortazar
Elias

DOINUA
Mutil koxkor bat
itsuaurreko

ARGAZKIA
Hodei Torres

Mundua hankaz gora

*Iaztik hona gure aurrean
dugu sekulako proba.
Beste konturik ez da kalean,
hori da egungo moda.
Ikusezina izanagatik,
zabalduta da edonora.
Erretratu hau ez ote dugu
gaur egungo metafora,
azken urtean gure mundua
jarri zaigu hankaz gora.*

*Alde batetik, aipaezina
dabil hona eta hara.
Bestalde, arau eta aholku,
ulertzeko zenbat traba.
Osasun eta askatasuna
oreka non ote da ba?
Bergia berriz luza dezagun
zuzenki imajinara.
Gizona legez guztiok erdi
biluzik sentitzen gara.*

*Orain urte bat jende guztia
bidali zuten etxera.
Gero mailaka itzuli ginen
apurka-apurka kalera.
Ohar gaitezen zenbait kontutan
egin dugula atzera.
Aurreko gure gizarte hura
dago orain buruz behera,
ostera ere hau artezteko
izango al da aukera?*

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

Hezkuntza

hiruka

Gehigarri berezia

170. zenbakia

2021eko apirila

**Etorkizuna
osatzeko,
hamaika
aukera**



 **EGIZU GAUZAK GERTA DAITEZEN** 

DBHko proiektu osoa 1. mailatik 4. mailara



Maker kultura aplikatzeko ■ Talentua kudeatzeko ■ Digitalean hezteko ■ Motibazioa sustatzeko

Ezagutu proiektua: egizu-gauzak-gerta-daitezen-ibaizabal.com

 **IBAIZABAL**

Maiatzaren 30ean, *Kalakalata*

Ibilaldia Uribe Kostara etorriko da bueltan, maiatzaren 30ean, Sopelara. Orain dela hamasei urte, 2004an, Leioan egin zuten Bizkaiko ikastolen aldeko jaia, bertako Betiko ikastolak Sopelako Ander Deunagaz elkarlanean antolatuta.

Ibilaldia Uribe Kostara etorriko da atzera, eta dena ondo badoa, alegia, pandemiaren gorabeherak zapuzten ez badu, maiatzaren 30ean gertatuko da hori. Non eta Sopelan. Orain dela hamasei urte, 2004an, Leioan egin zuten Bizkaiko ikastolen aldeko jaia, bertako Betiko ikastolak Sopelako Ander Deunagaz elkarlanean antolatuta. Eta elkarlanean jardungo dute oraingoan ere, baina, aurtan, Sopelari egokituko zaio ikastolen aldeko jaialdia hartzea.

«Batek baino gehiagok pentsa dezake oraingoa ez dela garairik aproposena Ibilaldia eta halako ekimenak prestatzen eta lan-tzen hasteko, baina, aitzitik, orain inoiz baino beharrezkoago dugu Ibilaldiak bere-bereak dituen balore horiek azaleratzea eta ekarpen berriak gizarteratzea». Halaxe adierazi zuten joan den azaroan Ibilaldia aurkezteko Euskaltzaindian eginiko ekitaldian. Ander Deuna ikastolako zuzendari Xabier Ugalde eta Betikoko lehendakari Koldo Tellitugaz batera, aurkezpenean egon ziren Josune Bañales Ibilaldia Elkarteko lehendakaria eta Eider Barrena eta David Cobos, Elorrioko Txintxirri ikastolako lehendakaria eta zuzendaria, hurrenez hurren. Txintxirriri zegokion Ibilaldia antolatzea COVID-19ak dena hankaz gora ipini duen zorigaiztoko garai honetan, eta jaialdia ohiko eran ezin eginin, ahal bezala saiatu dira

Ibilaldiaren helburuak izango dira ikastolen eredua indartzea; ikastolako komunitatearen eta herriko elkarte eta erakundeekiko harremanetan sakontzea; Ander Deuna eta Betikon eraikinak berritzen eta egokitzen segitzea; jaiotze-tasaren beherakadari aurre egitea; eta proiektu pedagogikoa ezagutaraztea.

helburuak betetzen. Oraingoan, baina, ahal izanez gero behintzat, betiko moduan egiten saiatuko dira Ibilaldia Sopelan.

IKASTOLEN EREDUA INDARTZEA HELBURU. Aurkezpenean azaldu zutenez, maiatzaren 30ean egitekoa den Ibilaldiaren helburuak izango dira ikastolen eredua indartzea; ikastolako komunitatearen eta herriko elkarte eta erakundeekiko harremanetan sakontzea; Ander Deuna eta Betikon eraikinak berritzen eta egokitzen segitzea; jaiotze-tasaren beherakadari aurre egitea; eta proiektu pedagogikoa ezagutaraztea.

KALAKALATA! HEZUR-MAMIRAINO BUSTI. Lantzaio biren ondoren, askoren arteko ideiak partekatu eta proposamenak eginda, *Kalakalata!* leloa aukeratu dute aurtengo Ibilaldiarentzat. «Berba horrekin hezur-mamiraino heltzen den bustitzea adierazten da, barru-barruraino hartzen duena, batzuetan deseroso ere sentiarazten gaituena», azaldu dute antolatzaileek. Horrez gainera, berba horregaz konpromisoa adierazi gura izan dute ere.

Logoari dagokionez, azaldu dute «gutziz blai jauzi egiten dabilen giza irudia» aukeratu dutela. «Pozez jauzi egiten duena, beharbada, ur sakonetan murgildu gura duena akaso... Baina, edozelan ere, ekimena eta bizitasuna adierazi gura duen irudia».

KANTA ETA BIDEOKLIPA. Xabi Paya getxoztarrak osatu du abestiaren letra, eta, arduradunek azaldu dutenez, «inor baino hobeto jakin du berba gutxitan leloarekin adierazi nahi dena; hots, bidai honetan, goitik behera eta hezur-mamiraino, busti beharra dagoela euskara



www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84, (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
- Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



a! egingo dute Sopelan



ezagutu eta ikasteko, euskaraz mintzatzeko, erabiltzeko eta bizitzen ikasteko». Bideoklipari dagokionez, ikastola bietako komunitatearen laguntza izan dute hori osatzeko; parte-hartzea, ideien ekarpenak... «Gure eskerrik beroena bideoa gauzatzea ahalbidetu duten lagun guztiei», adierazi dute antolatzaileek.

ETA 2024AN... GETXORA. Hiru urte barru, aldiz, Getxon izango da Ibilaldia jaialdia, San Nikolas ikastolak antolatuta. Edizio hori, baina, ez da Algortako ikastetxeak antolatzen duen lehenengo Ibilaldia izango; izan ere, 80ko hamarkadan, Uribe Kostako ikastolakaz batera, horren kudeaketan aritu zen, eta 2002an ere

Ikastetxe bientzat, Ibilaldia antolatzen duten hirugarren aldia izango da. Elkarregaz egin zuten 2004ko hartaz gain, Betikok 1997an ere antolatu zuen jaia, eta Ander Deunak, berriz, 1990ean.

bigarren ez antolatu zuen. Oraingoan, ikastetxeko arduradunek jakinarazi dutenez, San Nikolas ikastolak zenbait helburu lortu gura ditu, hala nola «Ibilaldia kostaldeko lurralde erakargarri honen bidez bultzatzea». Dioteenez, Getxo ondo komunikatuta dagoen herrialdea da, oso ezaguna eta jende multzo handiak biltzeko eremu zabalak dituena.

San Nikolas ikastolak aurkeztutako proiektuan adin guztietako pertsonentzako ekintzak daude barneratuta: «Ikastolak euskal kultura bultzatzeko duen nahiarekin bat eginez, txistulariak, bertsolaritza ikuskizunak, euskal musika-taldeak kontzertuak, kirol tradizionalen erakusketak... izango ditugu bertan».

ibilaldiaren denda



www.ibilaldia.eus/online-denda
Sartu, ikusi, erosi. Etxera bidaliko dizkizuegu aukeratutako produktuak



Zelan egin izen-ematea?

Apirilaren 21era eta 23ra arteko epea dago haur-eskoletarako eta batxilergorako aurrematrikulazioak egiteko, hurrenez hurren.

Apirilaren erdi-erdian gaudela, haur-eskoletarako eta batxilergorako aurrematrikulazio-kanpaina betean gaude. Txikitxoenen kasuan (hau da, iaz eta aurten jaiotakoak), guraso edo legezko tutoreek apirilaren 21era arteko tarte izango dute Partzuergoko eskoletan plaza eskatzeko. Izena emateko epe hori aurrenekoz irailean, urrian edo azaroan sartu gura duten haurrentzat irekiko da. Izan ere, udaberrian ireki den epe honetaz gain, Haurreskolak Partzuergoak urtean zehar beste izen-emate bi ere zabalduko ditu: urrian bata (abenduan, urtarrilean edo otsailean lehen aldiz sartuko diren umeentzat), eta urtarrilean bestea (martxoan, apirilean, maiatzean edo ekainean lehen aldiz sartu gura duten familientzat).

Haurreskolak Partzuergoak, denera, 236 haur-eskola ditu EAEko 178 udalerritan. Horien guztien artean, 8.567 plaza eskaintzen dituzte 0-2 urteko umeentzako. Ohi bezala, horietan izena emateko prozedurari buruzko informazioa zehatzagoa aurki daiteke partzuergoaren webgunean bertan.

BATXILERGORAKO MATRIKULAZIOA. Tarte apur bat zabalagoa da batxilergoaren kasuan. Matrikulazioak matrikulazio, apirilaren 23ra arte egongo da zabalik 2021-2022 ikasturte-



Haurreskolak Partzuergorako hiru izen-emate epe egongo dira.

Haurreskolak Partzuergoak, denera, 236 haur-eskola ditu EAEko 178 udalerritan; batxilergoak ikasteko, aldiz, 207 ikastetxe daude aukeran.

rako eskabideak egiteko epea. Eskerak institutu publiko zein itunpeko ikastetxe pribatuetan egiteko aukera dago, aurrez aurre, edo online, Hezkuntza Sailaren webgunearen bitartez, betiere aipaturako epearen barruan eginez gero.

Denera, batxilergoak ikasteko aukera eskainiko duten 207 ikastetxe publiko eta itunpeko izango dira EAEn. Ikasleek hiru modalitate hauetako bat aukeratu beharko dute: Zientziak; Giza eta Gizarte Zientziak; edo Arteak. Aurtengo ikasturtean 31.724 ikasle ari dira batxilergoak ikasten, aipaturiko modalitate horietako batean.

SAN NIKOLAS IKASTOLA

1-2 URTEKO HAURRENTZAKO IZEN EMATEA

APIRILAREN 16TIK >>> MAIATZAREN 21ERA

**MATRIKULA EGIN EZ DUTENENTZAT*

SANIKOLAS.EUS

Areneazpi Kalea, 15 [48991]
Getxo, Bizkaia

Lizar Begoña Euskara errazean aritzeko Irakurle Klubaren gidaria

«Euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoa da hau»

IKER RINCON MORENO

Hilean behin (eguenetan) euskaraz irakurtzeko errazak diren liburuez berba egiteko kluba abiatuko dute Algortan. Lizar Begoña sopoloztarak gidatuta, bertan, liburu zehatz batzuen inguruan iritziak, hausnarketak, ulertu ez diren kontuak eta halakoak elkarbanatuko dituzte. Hiru hilabete iraungo du irakurle klub berri horrek, eta lehenengo saioa apirilaren 15ean izango da, Fadura kiroldegian.

Zer dela eta euskara errazean aritzeko Irakurle Kluba? Euskal literaturaren inguruan aritzeko, irakurketa sustatu, eta gizarte mailan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoa da. Pentsamenduak, ideiak eta esperientziak partekatzeak guinea da eta, nola ez, taldearen hartu-emanean gozatzekoa.

Euskara ikasten dabilen jendeari bideratuta dago taldea, ezta? Bai, B1 eta B2 maila duten hiztunentzat dago bideratuta. Irakurgaiak ere maila horretara egokitutakoak dira. Euskara ikasten dabilen jendearentzat formatu honetako taldeek ikasten jarraitzeko modu oso atsegina eskaintzen dutela uste dut. Hizkuntza izanik literaturaz aritzeko tresna, eta literatura izanik hizkuntza erabiltzeko aitzakia.

Zertan oinarritu zarete liburuok aukeratzeko? Irakurgai mailakatueta arakatzan ibili gara, eta uste dut aukeratutako hiru liburuak



Saioen edukiera aretoaren arabera izango dela dio Lizar Begoñak. HODEI TORRES

PARTE HARTZEKO
Informazio gehiagorako eta izena emateko sartu www.egizu.eus webgunean edo deitu 619 935 541 telefono zenbakira.

erakargarriak direla. Niri ere dinamizatzeko interesgarriak egin zaizkidanak aukeratu ditut, espero dut hala izatea irakurleentzat ere.

Zein izango da zure zeregina taldean? Nire zeregina taldearen dinamizazioa, gaiak mahai gainean jartzea eta iritziak eta parte-hartzea sustatzea izango da. Saio bakoitzeko haritik tiratzeko gai batzuk eramango ditut, zutarri gisa. Hala ere, politena solasaldia taldeak gidatzea dela uste dut, eta irteten diren ideiek elkarrizketa bidera dezaten utzi nahi nuke.

Ikastolak
HAMILTON Play-School
Enpresak
ENGLISH SATURDAY Play-School

hamilton
IDIOMAS

INGELES
ALEMANIA
FRANTSESA

Taldeak, enpresak eta partikularrak
Eskolaz kanpoko ekintzak
Maila guztiak
Ingeles hiru urtetik aurrera
Taldea txikiak
Inglaterran egonaldiak

SOPELAN, Dr. Landa 6.
LARRABASTERRAN, Iberre 9.
946 763 012 - info@hamiltonidiomas.com

SOPELAKO HAURRESKOLA
MATRIKULA ZABALIK! / MATRIKULA ABIERTA!

MATRIKULAZIOAREN EPEA / PERÍODO DE MATRICULACIÓN
Apirilaren 12tik apirilaren 21era
Del 12 de abril al 21 de abril
www.haurreskolak.eus

946762559
Antzar Potzu, 12. 48600

Iratxe Marta Uribe Kostako AEK-ko arduraduna

«Kalean ikusarazi behar genuen Korrikaren lana»

Pandemiak aurtengo Korrika atzeratu du, baina euskaltegiek ez dute beraien jarduera eten. Hori ikusarazteko, AEK-k *Bultza Euskaltegiak! Bultza Euskara!* kanpaina abiarazi du, eta 2022an 22. Korrika egiteko asmoa plazaratu dute: martxoaren 31tik apirilaren 10era arte, hain zuzen ere.

ANDER ZARRAGA

Aurtengo Korrika atzeratu behar izateak kalte ekonomikoa eta ikusgarritasun falta ekarri die AEK-ko euskaltegiei. Horren eragina eta irtenbideari buruz gehiago jakiteko egon gara Iratxe Marta Uribe Kostako AEKko arduradunagaz.

Aurten ez da Korrikarik egin, baina AEKn ez zarete geldirik geratu. Zertan ibili zarete? Otsailean hasi ginen *Bultza Euskaltegiak! Bultza Euskara!* izena duen kanpainarekin. Gure helburua ez da Korrika ordezkatea, hori ezinezkoa delako, baina pentsatu genuen hori egongo ez den urtean ezin zitekeela ahaztu euskaltegiok herrietan dugun lanaren garrantzia. Horretarako abiarazi dugu kanpaina, pentsatu genuelako COVID-19aren garaioan ostalaritzak eta beste batzuek sufritzen dutena entzuten denez, guk ere gure egoera kaleratu behar genuela; jendeak horren kontzientzia ere har dezan. Pentsatu genuen kalera atera behar genuela ikusarazteko Korrikak egiten duen lana euskararen sustapenean eta normalizazioan.

«Korrikaren alde ekonomikoak AEKrentzako bultzada ekonomiko oso garrantzitsua suposatzen du. Guk behar genuen diru hori banketxeei eskatu diegu, eta, orain, zorretan gaude»

Zertan datza kanpaina? Dinamikak hiru ardatz nagusi ditu: alde batetik, administrazioei beraien inplikazioa eskatzeko gutun bat bidali diegu, ikasturte honetan bizitzen ari garen egoera ikusarazteko; bestetik, martxoaren 28an ekitaldi xumeak egin genituen Euskal Herriko 80 herritan baino gehiagotan; eta, bukatzeko, Korrikaren alde ekonomikoa dago, horrek AEKrentzako bultzada ekonomiko oso garrantzitsua suposatzen du. Guk behar genuen diru hori banketxeei eskatu diegu, orain zorretan gaude, eta kanpaina horren bitartez herritarrei eskatu diegu ekarpen ekonomikoak egitea, zulo horretatik atera ahal izateko. Horrek oraindik jarraitzen du, eta apirilean eta maiatzean ere martxan egongo da AEKren webgunean, besteak beste.

Zer dio erakunde publikoei bidalitako gutunak? Eragile eta erakunde publikoei bidali diegun gutun hori Rikardo Arregik duela 40 urte idatzi zuen gutun bera da, euskalduntze alfabetizazioaren garrantzia zein zen azaltzen zuena. Hainbat urte pasa diren arren, garrantzia



IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK!
¡ABIERTO EL PLAZO DE INSCRIPCIÓN!

Apirilaren 12tik - 21era
Del 12 de abril al 21

Edozein galdere edo zalantzarako deitu telefonoz
Para cualquier duda o consulta llamar por teléfono



946 773 765

Urtiene estrada, 5 - GORLIZ



Besteak beste, Sopelan eta Erandion ekitaldiak egin zituzten martxoaren 28an. AEK

bera izaten jarraitzen duela uste dugu. Urtero 55.000 pertsona daude euskaltegietan matrikulatuta, beraz, horien beharra dago. Jendea ez da eskoletan edo hezkuntza arautuan euskalduntzen, lan hori euskaltegietan egiten da. Beraz, gutun horretan eskatzen genuena zen gure egoeraren jabe egitea, eta bereziki sare pribatuko euskaltegietan dauzkagun baldintzak kontutan har ditzaten. Adibidez, ikasleen doakotasuna ere aipatzen dugu, urteetan AEKren aldarrietako bat izan dena.

Korrika ez egiteak, arazo ekonomikoez gain, ikusgarritasuna ere kendu dizue? Bai, Euskaltegiek kalera ateratzeko genuen tarte zen, eta hori aurrean gertatu ez denez, apur bat ahaztuta sentitu gara. Urteak daramatzagu esaten Korrikak AEK gainditu duela, mundu guztia akordatzeko delako Korrikarekin. Aurrean hori ez egitea zartada izan da guretzako; eraba-

«Urtero 55.000 pertsona daude euskaltegietan matrikulatuta. Jendea ez da eskoletan edo hezkuntza arautuan euskalduntzen; lan hori euskaltegietan egiten da»

ki hori hartzea oso gogorra izan zen guretzat. Esango nuke jendeak tristura handiarekin hartu duen gauza ere dela, hala transmititu didatelako. Hala ere, jendea jakinarazi nahi genion Korrika egon ez arren Korrika martxan dagoela, eta gu ere ari gara eskolak ematen. Horregatik, martxoaren 28an hainbat herritan ekitaldiak egin genituen, hemen, Sopelan, egin genuena bezalakoa.

Nola aurreikusten duzue datorren urteko Korrika? Korrika bat amaitzen denean hurrengoa hasten gara prestatzen. Urte biko prestaketa da, eta ibilbidea, mezua, leloa eta guztia prest geneukan. Makinaria guztia martxan zegoen, eta, atzerapenaren ondorioz, beste lan batzuk egin behar izan ditugu. Martxoaren 28ko ekitaldietan iragarri genuen bezala, 2022an Korrika egingo dugu, eta orain horretan gabilta buru-belarri. Espero dugu egoera honek baimentzea, eta normaltasunez egitea.

Nola konpondu zarete euskaltegietan izurritearen erdian? Klaseak ematen jarraitu dugu, eta martxoko konfinamenduaz geroztik ez dugu izan itxialdi larririk, ezta sustorik ere. Ikasleek ere eskatu digute nahiago zituztela klaseak aurrez aurre ematea; online formatua ez dute hain gustuko. Irakasleok etxetik zerbitzua ematen jarraitu genuen, asmatu genituen moduak tresna ezberdinekin, eta ekainean ere ebaluazioa egin genuen; momentu hartan irakasleek egin zuten esfortzua ikaragarria izan zen. Jendeak jaramon egiten geniola sentitu zuen, eta oso pozik egon ginen horregatik. Uste dut hizkuntza bat ikasteko aurrez aurreko jarduerak oso garrantzitsuak dela. Zorionez, orain, euskaltegiak zabalik daude, jendea klaseetara etortzen ari da, eta pozik gaude lanean jarraitu ahal izan dugulako. Hori ere ikusarazi nahi genuen ekimen horien bidez.

Altzaga-Erandio Haurreskola

MATRIKULA ZABALIKI!
MATRIKULA ABIERTA!

MATRIKULAZIOAREN EPEA: Apirilaren 12tik 21era (biak barne)
PERIODO DE MATRICULACIÓN: Del 12 de abril al 21 (ambos incluidos)

HAURRESKOLA

ALTZAGA-ERANDIO HAURRESKOLA
Desanxión, 4 - ERANDIO
Telefonoa: 944 674 667
Korreo elektronikoa: altzaga.erandio@haurreskola.k.eus
http://www.haurreskola.k.eus

E!
ERANDIO
LIBREA
BILKAPEN
ERANDIO

E!
ERANDIO
LIBREA
BILKAPEN
ERANDIO



30 urte mihigintzan

Euskara elkarteek euskararen biziberritzean
izan duten eragina 1987-2017

Iñaki Rodríguez Gomez

EUSKAL
UERU

Txerra Rodriguez Soziolinguista

«Euskararen erabilera erdigunean jarri zuten elkarteek»

Derio bere jaioterrian Tximitx euskara elkarte sortu zuenetik, soziolinguistikan murgilduta ibili da Txerra Rodriguez. Orain, 30 urte mihigintzan. Euskara elkarteek euskararen biziberritzean izan dute eragina 1987-2017 liburua argitaratu du: hiru hamarkadetako ibilbidean euskara-mugimenduak izan dituen lorpenak eta porrotak plazaratzeko lana.

TESTUAK: ANDER ZARRAGA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Zein izan lan hau egiteko abiapuntua, edo nondik sortu da beharra? Orain dela ia 20 urte, gazte batzuk batu ginen Derion euskara elkarte bat egiteko ametsarekin. Gero, hori errealitate bihurtu genuenean, rol-banaketa egin genuen; niri tokatu zitzaidan elkarte sortu berria soziolinguistika kontuetan eta hala-koetan janztea, edo, behintzat, horretan trebatzen hastea. Une horretan, prozesu bat hasi zen, eta, ordutik, nik urte askoz jarraitu dut euskara elkarteetan militatzen; beraz, baneukan gogo hori buruzko ikerketa potolo bat egiteko. Batez ere, iruditzen zitzaidalako fenomeno hori oso gutxi ikertu delako, eta nire ekarpena egin nahi nuelako horren inguruan.

Nolakoa izan da horretarako lan-prozesua?

Lau urte egon naiz tesia egiten; hasiera batean, jarri nituen helburuak asmo handikoak izan ziren, baina, gero, horiek jaisten joan behar izan nintzen, batez ere, gai horren inguruan zegoen ikerketa-faltaren eraginez. Izan ere, ez zegoen material adina nik nahi nuen sakontasun mailara heldu ahal izateko. Hala ere, 26 elkarrizketa egin nituen, 26 elkarte ezberdinetako pertsonekin, eta, horrez gainera, beste 16 adituk edo arituk erantzunak eman zizkidaten. Horrekin batera, euskara elkartearen inguruan idatzita dagoen guztia, edo nire eskuetan erori dena, izan da tesia egiteko masa edo orea.

«Urte askoz jarraitu dut militatzen euskara elkarteetan, beraz, baneukan gogo hori buruzko ikerketa potolo bat egiteko. Gainera, oso gutxi ikertutako fenomeno dela iruditzen zitzaidan, eta nire ekarpena egin nahi nuen».

Elkarrizketa horiek egiteko Euskal Herriko lurralde guztiak hartu dituzu kontutan? Lapurdin eta Zuberoan izan ezik, Euskal Herriko gainontzeko lurraldeetako euskal elkarteekin batu naiz tesirako ikerketak eta elkarrizketak egiteko.

1987tik 2017ra; aurretik ez al zegoen euskara elkarerik? Lehenengo elkarteak 1983an sortu zen, baina egia da 1987an argitaratu zuela Txepetxek *Un futuro para nuestro pasado* liburua, eta, modu batera edo bestera, liburu horretatik abiatuta hasi ziren hainbat herritan euskararen aldeko elkarteak sortzen. Hori dela eta erabaki nuen urte hori mugarri bezala jartzea, nolabait hor hasten delako benetan abiarazten Euskara Elkartearen Mugimendua deitu daitekeena. Bestalde, tesia 2016an hasi nuen, 2017 urtea hartu dut bukatzeko, nonbait jarri behar nuelako amaierako mugarri hori. Horretaz gain, 2018an antolatu zen lehendabiziko Euskaraldia, eta, nire ustez, hori Euskara Elkartearen Mugimenduaren baitan sar daitekeen gertakizun bat da; esango nuke nolabaiteko inflexio-puntua izan dela. Momentu horretan iruditu zitzaidan, ikerketa egiten ari nintzen bitartean, gertatzen ari zena aztertzea gehiegizkoa izango zela. Gainera, 30 urteek zenbaki borobila egiten dute, eta horrek ere bere eragina izan zuen, noski.

Zer dela eta diozu inflexio-puntu bat eman zela lehendabiziko Euskaraldia egin zenean? Ordura arteko Euskara Elkarteen Mugimendua bere buruari begira zegoen, logikoa den moduan. 2018an, aldiz, aurrerapauso bat eman zen, eta Euskal Herri osoa estaltzeko ahalegina egin zuen mugimenduak. Hori Euskaraldian gauzatu zen, eta, zentzu horretan, niri iruditzen zitzaidan markatu zuela beste fase batera sartzeko garaia ere zela: bai aktibazio sozialaren aldetik, eta baita Euskal Herri osoan eragin dezente handiagoa izatearen aldetik ere.

Egin duzun ikerketan hainbat erpin dituzten elkarteak ikertu dituzula diozu; zein aspektutan oinarritu zara zure ikerketa egiteko? Saiatu naiz orokortasun batetik abiatzen eta, orohar, ikertu zitezkeen gauzei begiratzen. Azken finean, euskara elkarteak tokiko fenomenoak izan dira, eta izaten jarraitzen dute. Hala ere, egin dudan ikerketan saiatu naiz begirada orokor batetik abiatzen, eta, modu orokorrean, aztertzen euskara elkarteek zer egin duten, nahiz eta liburuan edo ikerketan agertzen diren gauza batzuk ez diren herri guztietan egin. Lanari begirada global bat eman nahi nion, baina tokian tokiko mugimenduetatik abiatuta.

Esango zenuke elkarte bakoitza bere errealitateak baldintzatuta sortu zela? Bai, noski. Euskara elkarte guztiak herriari lotuta egon dira beti, eta oraindik daude. Horregatik, sortu diren herri horren errealitatetik eta hor duten indar korrelaziotik ere abiatu dira, eta egin ahal izan dute egin duten guztia. Zentzu horretan, elkarte bakoitzak egin dituen ekarpenak oso handiak dira, baina lanaren helburua ez da herri bakoitzean lortu dena islatzea, baizik eta aztertzea, ahal zen neurrian, guztien mugimendua, orokorrean.

Sortze-prozesua ere ikertu duzu; nondik etorri zen elkarte horiek egiteko beharra? Nik esango nuke 80ko hamarkadan euskalgintzaren egoera konfrontazio momentu batean zegoela, eta euskara elkarteak hasieratik saiatu ziren giro horretatik aldentzen, ahal zuten neurrian. Beste aniztasun bat bilatu zuten, bai osaeretan eta baita funtzionamenduetan ere. Ildo horretan, ahalegindu ziren zeukaten dibertsitate hori islatzen, eta, gero, beste alde batetik, euskararentzako funtzioak berreskuratzen. Horretarako prozesuan, adibidez, ikusi zuten herri-mailako komunikabideak behar zirela, eta horiek sortzera jo zuten; aisialdia euskalduntzeko beharra ere ikusi zuten eta horretarako tal-



«Euskara elkarte guztiak herriari lotuta egon dira beti. Horregatik, herri horren errealitatetik, eta hor duten indar korrelaziotik ere, abiatu dira egin dutena egin ahal izateko»

de euskaldunak sortu zituzten, beste askoren artean.

Zure lanean diozu hainbat helburu zituztela hasieran, baina ez zituztela denak bete. Hala ere, lortutakoa hor dago eta goraipatzekoa ere izango da, ezta? Bai, zalantzarik gabe. Nik uste dut sorrera-prozesu horretan bazeudela amets handi batzuk, eta egia da urteen poderioz egitasmo horiek guztiak ez zituztela lortu. Beharrezkoak izango ziren bere garaian, eta oraindik ere garrantzia dute; azken finean, uste dut ametsak izatea ez dela gauza txarra. Gero, egia da errealitateak bakoitza bere lekuan jartzen duela, eta egia da ere euskara elkarteek lorpen handiak egin zituztela. Baina elkarrizketa horietan sumatu dudana da geratu den sentimendua ez dela oso positiboa; baduela bere kutsu negatiboa, hain zuzen ere. Dena den, egin ditudan elkarrizketa ia guztietan pentsatu dut nolako



Txerra Rodríguez soziolinguista eta hizkuntza aholkulariak UEUgaz argitaratu du bere liburua.

egoeratan egongo ginateke euskara elkarterik sortu izan ez balitz. Horregatik, zentzu horretan, nik esango nuke euskara elkarteek egin dituztela gauza batzuk euskararen alde, eta horiek nabarmentzekoak direla.

Euskara Mugimenduaren ekarpenetatik zeintzuk nabarmenduko zenituzke? Alde batetik, esango nuke euskara elkarteak izan zirela, agian ez lehendabizikoak, baina bai indar gehien jarri zutenak, hizkuntzaren erabileraren aldekoak. Esango nuke, gaur egun, bai euskararen aldeko mugimendu guztiek eta baita administrazioak ere, modu batera edo bestera, hori besarkatu dutela. Azken finean, orain, euskararen osasunaren faktore nagusienetako bat da erabilera bera. Horretaz gain, ez ziren erabileraren diskurtsoan zentroan jartzera mugatu, eta ahalegindu ziren, eta oraindik ere saiatzen dira, erabilera hori bultzatzeko mekanismoak

«Euskara elkarteak oso trebeak izan dira artefaktuak sortzeko orduan, eta oso emari handia izan dute, baina ez diete asko erreparatu egindako lanaren emaitzei. Oso gutxi ebaluatu dute egindako lana, eta ez dute atzera begiratu»

martxan jartzen, batzuk arrakasta gehiagorekin, eta beste batzuk ez hainbestekin. Baina bidezidor horiek eraiki zituzten, eta horiek dira nire ustez euskara elkarteek ekarpenik nagusienak: erabilera erdigunean jarri eta erabilera bultzatzeko mekanismoak sortu izana.

Gure eskualdean, Uribe Kostan, Berbots, Bizarra Lepoan eta Egizu elkarteak ditugu orain; nolakoa izan da elkarteon ibilbidea?

Nik egin dudak ikerketa orokorra da, baina uste dut nahiko ondo ezagutzen ditudan elkarteak direla. Esango nuke elkarren artean oso ezberdinak direla, eta berdintasun bakarra euskara elkarteak direla. Herri bakoitzaren ezaugarriak baldintzatuta oso ibilbide ezberdinak izan dituzte, bai Berbotsek Erandion, eta baita Bizarra Lepoanek eta Egizuk Getxon ere. Egia da lehenengo biak zaharretakoak direla Bizkaian, baina oso garapen desberdina izan dute urteekin. Berbotsek kasuan, adibidez, ibilbide oso gorabeheratsua izan dela esango nuke, Getxokoak ez bezala. Elkarteok oso egitura profesionala izan dute ia beren sorrerarik, eta Erandiokoarena, aldiz, oso militantea izan da hasieratik. Zentzu horretan, ondo adierazten du eskualdean eta Euskal Herrian egon diren elkarte mota nagusi biak. Batzuk oso profesionalizatuta egon dira, eta beste batzuk, aldiz, kontrakoa: militantziari esker funtzionatzen zuten, batez ere. Horrek bere alde onak eta txarrak izan ditu, eta niri iruditzen zait fenomenoaren izaera irregularra oso ondo adierazten duela, azken finean, tokiko fenomenoak direlako.

Uste duzu Getxokoak erreferentzia izan direla elkarte batzuentzako? Ikerketa honek dituen hutsuneak oso garbi ikusten dira, horrekin lanean hasi nintzenean, ikerketa sakonago bat egin nahi baitnuen. Azken finean, herri zehatz bateko elkarteak lortu dituen emaitzak aztertu balira ikuspuntu orokorrago bat izango genuke, baina ez da horrelakorik egin. Orduan, sakontasuna lortzeko ikerketa hori ere egin beharko litzateke. Euskara elkarteak oso trebeak izan dira artefaktuak sortzeko orduan, eta oso emari handia izan dute, baina ez diete asko erreparatu egindako lanaren emaitzei. Oso gutxi ebaluatu dute egindako lana, eta ez dute atzera begiratu, egindakoak izan dituen eragin edo emaitzak aztertzeko. Orokorrean, euskara elkarteak ahulak ere izan direla ondorioztatu daiteke, eta, horren bitartez, errazagoa da egindako lanaren emaitzak ateratzea. Baina horrek bestelako lana eskatzen du. ◀

Zinez diot **Nomadland**

Nomada garaikideak

Apirilaren 26an Oscar Sariak ospatuko dira AEBetan. Sariketa horretan, Chloé Zhao zinemagilearen azkenengo lana hautagai izango da: *Nomadland*.

TESTUA: **NEREA FALAGAN** ►

Bere senarraren heriotza dela medio, AEBetako Atzeraldian Handian Fern izeneko protagonistak dena galtzen du. Hori dela eta, emakumeak karabana zahar batean bizitzea erabakitzen du. Nevada atzean utzita, Ameriketako Estatu Batuetako Mendebaldera doa. Bidaian zehar zailtasunak baditu ere, askatasuna besarkatuko du. Izan ere, Fern benetako nomada bat da; nomada garaikidea.

Zhao-k edertasun handiz kontatzen digu istorio gordin hau, non prekarietatea, zahartzaroa eta bakardadea zeharka lantzen diren. Bidaian zehar, Ludovico Einaudiren pianoarekin batera, paisaiek badute zeresan handia.



Nomadland

Jatorrizko izenburua:*Nomadland***Zuzendaria:**

Chloé Zhao

Gidoilariak:

Chloé Zhao, Jessica Bruder-en liburuan oinarrituta.

Antzezleak:

Frances McDormand, David Strathairn, Linda May, Charlene Swankie.

Iraupena: 108 min

Zuzendariak argi zeukan: «Furgoneta batean bidaiatzen duzunean, natura aurrez aurre duzu. Naturak bizitza aldatzen dizu. Hori ere filmean islatu nahi genuen».

Egun, gero eta gehiago nahasten dira dokumentalaren eta fikzioaren generoak. Zhaoren zinema horren adibide bat da. Aurreko film luzeen aktoreak hezur-haragizko pertsonekin konbinatu zituen. *Nomadland*-en arrakastaren arrazoietakoa bat da hori. Benetakotasuna ematen dio istorioari, eta, ikusle bezala, pertsonaien bizitza duinetara gerturatzen gaitu.

Jessica Bruder kazetariak idatzitako liburuan oinarrituta dago filma. Frances McDormand aktoreak hura irakurri eta asko hunkitu zuen. Ohikoa ez bada ere, kasu honetan, aktorea izan zen zuzendariari deitu ziona filma aurrera eramateko. Zorionez, zuzendari eta protagonistaren arteko elkarlana arrakastatsua izan da. McDormand-ek lan bikaina egin du. Era beran, aipatu beharra dago filmean jende errealearekin, benetako nomada garaikideekin, lan egiteak lagundu duela. ◀

Irakurrian **Aro beilegia**

Garai berrietarako poesia

Lizar Begoña poema-idazlea eta berak argitaratu duen azken lana izango dira Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoko gonbidatuak hilabete honetan.


TESTUA: **I.A.** ►

Lizar Begoñak, *Aro beilegia* poesia liburuan, oso poesia berria, freskoa eta indartsua erakusten digu. Idazle gazteei zuzendutako Donostia Kultura III. Poesia Lehiaketako obra garailea izan dena, hain zuzen ere.

Badirudi Begoñaren liburua irakurriz gero egia jakiteko modu bat izan dezakegula. Aspaldiko eta hain erabilia izan den erromantizismoaren kutsua desegiten ahaleginak egin ez idatzita dagoela esan liteke.

Pentsa daiteke oraingo garai berriari poesia berri bat dagokiola, eta horixe erakutsi nahirik idatzi duela.

Eskuartearen dugun poesia liburu hau ausera, biluzia, batzuetan deserosoa da.



Aro beilegia

Egilea:

Lizar Begoña

Argitaletxea:

Balea Zuria

Urtea:

2020

Orrialde kopurua:

64

Jatorrizko hizkuntza:

Euskara

Nahiz eta oso gaztea izan, egilearen barneketasun oparoak, batzuetan konplexuak, besteetan ahaltsuak, erakutsi nahi edo komunikatu beharren bat sumatzen da liburu horretako poemetan.

Begoñak gizartea, ekonomia, teknologia... kritikatzeko, eta, aldi berean, sexu aukerak ere aldarrikatzeko, egunerokotasunean inspirazioa aurkituz.

Hizkuntzaren inguruan ere oraingo egoera eleaniztuna liburuan ekartzen digu: euskaraz idatzi bai, baina frantsesa, ingelesa eta italiara ere agertzen dira bere egunerokotasunean entzun, erabili eta partekatuak bezala.

Ausardia eta gaztetasuna erakusten du non-nahi Lizar Begoñaren liburuak.

HURRENGO HITZORDUA. Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoa apirilaren 29an, 19:30ean elkartuko da, Algortako Azebarri kulturgunean. Lizar Begoña idazle sopoloztarra izango da hitzordu horretako gonbidatua, eta, bertan, *Aro beilegia* bere poesia liburu berriari buruz arituko da. ◀

Iker-Ekaitz Libano Espainiako Selekzioko parakanoa entrenatzailea

«Joko Olinpikoak egindako lanaren emaitza dira»

Higinio Rivero arraunlariagaz batera, 2021eko irailean Tokioko Joko Paralinpikoetara joango da Iker-Ekaitz Libano entrenatzailea. Barrikostarra Bizkaiko Piraguismo Federazioko presidentea ere bada.

ANDER ZARRAGA ►

Egun bakar batean egingo den probarako lau urte daramatzate prestatzen Higinio Rivero arraunlariak eta Iker-Ekaitz Libano haren entrenatzaileak. «Piraguaren munduan Joko Olinpikoak dena dira, eta guztia erabakitzen da minutu bat baino gutxiagoan», azaldu du Libanok. Irailean joango dira biak Tokioko Joko Paralinpikoetara, baina, entrenatzailearen ustez, egindako lan guztiaren emaitza besterik ez da hori: «Benetan garrantzitsuena eta ederrena da horraino egindako bide eta esfortzu guztia».

Sevilla eta Asturias artean ibiltzen dira entrenamenduak egiten, «ahalik eta baldintza egokienak izateko». Neguan La Cartujako goimailako zentroan aritzen dira, eta bero handia egiten duenean, aldiz, Asturiasera mugitzen dira. Pandemiaren ondorioz, baina, egitura hankaz gora jarri zaie, hala ere, lasai daudela dio Libanok, luzapen horrek hobeto prestatzeko denbora eman dielakoan.

Riverogaz lanean hasi zen bere entrenatzeko moduak arraunlariaren arreta deitu zuelako: «Berak deitu ninduen bere entrenatzailea izatea nahi zuelako. Kontatu zidan proiektu bat zeukala nazioartean lehiatzeko, eta elkarregaz hasi ginen lanean». Azpimarratu du Rivero beti bikaintasunaren bila doan kirolaria dela, eta, denboragaz eta lanagaz, elkarren arteko konfiantza indartuz joan dela.

BARRIKATIK TOKIORA. Gaztetan, Barrikako piragua taldean lehen saiakera egin ondoren, bertan geratu zela gogoratu du Libanok. «Probatu nuen, eta ondo ematen zitzaidanez bertan geratu nintzen; gainera, oreka ona neukan, lehiaketarako piraguetan hori berebizikoa da, eta horrela hasi nintzen». Euskadiko selek-



Iker-Ekaitz Libano Tokioko Joko Paralinpikoetara joango da aurten. HODEI TORRES

Nolakoa da Barrikako piragua taldea?

«Oso talde polita daukagu: 100 bazkide inguru gara, horietatik, 30 gazteak dira. Kadete talde nahiko indartsua ere osatu dugu, baina eskola mailako arraunlariak falta zaizkigu. Horregatik gabiltza eskoletan ekintzak egiten. Orain arte, ikastaroetan arrakasta nahikoa izan dugu, eta bost arraunlari gehiago etorri dira. Gu lehiaketarako taldea gara, eta txikitatik hori barneratzen diegu gazteei»

zioan egotera heldu zen. Ikasketetan etenaldi bat egin ondoren, klubera itzuli zenean, entrenatzaile bat behar zuten, eta horrela hasi zen klubeko gazteak entrenatzen. «Unibertsitateko karrera amaitu nuenean serio hartu nuen entrenatzearen kontua, eta gero eta gehiago joan nintzen prestatzen, duela bi urte, Espainiako Federaziorako deitu ninduten arte». Horrez gain, Bizkaiko Piragua Federazioko presidentea ere da Libano, «kargurako aurkeztu nintzen jendeak eta klub batzuek hala eskatu zidatelako». Gaur egun kirolaren mundu hori apur bat makal dagoela aitortu arren, eskola inguruko piragua zaletasuna bultzatzeko lanean daude, «harrobia finkatu nahi dugu». Bestalde, Bilboko itsasadarrean ere talde bat sortzeko ahaleginetan daude, uste osoa dutelako horrelako talde batek ahalmen handia izan dezakeelako, baita Estatu mailan ere.

Bitartean, Barrikako lokalean egokitzen ari diren honetan, azpimarratu du aurten emaitza oso onakaz hasi dutela denboraldia: bigarren eta hirugarren postuak eskuratu dituzte Euskadiko txapelketan. ◀

Esposizioa eta sentikortasuna

Esposizioa kontrolatzeko hirugarren aldarri bat agertzen da: sentsorearen sentikortasuna. Argi egoki bat lortzeko lagunduko digu, baina, beti ere, bere mugak ezagutu behar ditugu zarata digitala ager ez dadin.


Esposizioa

Argazkietan argia kontrolatzeko, orain arte, abiadura eta diafragma erabili ditugu. Bi alderdi horiek kontrolatuta, argiaren oinarria kontrolpean dugu, baina ISOarekin hirugarren aukera bat zabaltzen zaigu: argi gutxi dagoenean, abiadura eta diafragmarekin nahiko ez dugunean, ISOaren sentikortasunarekin jolastuko gara.

Argia neurtzen fotometroarekin

Argiaren kontrola edukitzeko, fotometroa izango da gure bi-delaguna. Argazki kameran beti ikusten ditugun zenbaki horiek, +1, 0, -1... dira hori.

Grafiko hori da gure fotometroa, eta esposizioaren neurketa egiten du. Esposizio «zuzen» bat edukitzeko, 0 balioan egon behar da beti.



Kamerak, fotometroaren bitartez, gure enkoadraketaren argiaren neurketa bat egiten du, eta, horren arabera, esposizio zuzena markatuko digu: 0 balioa.


Fotometroak neurtzeko modu ezberdinak ditu: normalean erabiltzen dena ponderatua da, baina modu berezi horietan ez gara momentuz sartuko, aurrerago aztertuko baititugu.

Argiaren taula eraman


Gorde ezazue hurrengo grafiko hau, oso lagungarria izango baita edozein momentuan zalantzak argitzeko.

Zein da argi zuzena?

Zuzena esaten dugunean, kamerak eta estandarrek zuzen bezala ulertzen duten argia da. Baina gu izan behar gara argi hori zehazten dugunak. Argazkiak ez dira estandar bat soilik, eta nahieran erabili behar dugu argia. Ilunago edo argiago nahi dugunean argazkia, -1 edo +1 balioan jarri beharko dugu fotometroa, edo -2/+2...



Argazkietan ikusten duzuenek, -2, 0 eta +2 balioak daude. Erdikoa da «zuzena», baina gaur irudikatu nahi badugu ezkerrekoa aproposagoa da, eta egun argitsua adierazi nahi badugu, orduan, eskumakoa aukeratu beharko genuke.



Esposizioaren hirukia

Abiadura eta diafragma erabili ditugu orain arte argia kontrolpean edukitzeko, oraingoan, baina, ISOa ere erabiliko dugunez, hiru alderdirekin jolastuko gara. Horregatik, hiruki batekin hobeto ikusten da.

Esposizioa 0-an uzteko (edo nahi dugun balioan, aurretik esan baitugu beti ez dela 0 izan behar) egiten ditugun aldaketek, pauso bat gora edo behera egiten dugunean, hirukiaren beste bi balioei eragingo die.

Adibide bat jarriko dugu hobeto ulertzeko taularen erabilera eta hirukia. Klean gaude egun eguzkitsu batean, eta hauek dira kameraren balioak:

ISO100 | Abiadura 125 | Diafragma f/5.6


Enkoadraketa egin eta fotometroak +2 markatzen digu, beraz, bi argi-puntu jaitsi behar ditugu:

1go aukera: Abiadura igo 500era, eta mugimenduan dagoena izoztuta bezala agertuko da.

2. aukera: Diafragma itxi f/11ra, eta eremu sakontasun handia edukiko dugu. Hortaz, fokuan agertuko da dena, lehen planotik fondora.

Taulan begiratzen dugunean, ez digu esango zehazki zein balore jarri behar dugun, horretarako fotometroa daukagu. Lagungarria izango da diafragma, abiadura eta ISOaren eragina gogorarazteko, eta horren arabera guk erabakitzeke zein den gehien komeni zaigun aldarria. Batzuetan diafragma eta eremu sakontasuna beharko ditugu; besteetan, aldiz, abiadura izango da lehentasuna; eta bi horiekin ez dugunean argi nahikorik, ISOa igoko dugu: gure azken komodina.

ISOa, sentsorearen sentikortasuna



Gaur egun bizi garen mundu digitalaren karretea da sentso-rea: gure pelikula edo euskarri fotosentikorra. Pelikula erabili dugunontzako normala zen ISO edo sentikortasun finko bat edukitzea, karretea aldatu ezean. ISO digitalak ekarri digun aurrerapenetako bat da sentikortasun hori aldakorra izatea, gure esposizioaren kontrolerako komodina izango dena. Kamera bakoitzak bere oinarritzko ISOa du, batzuek ISO 200, beste batzuek ISO 100... Garrantzitsua da jakitea zein den gurearen oinarritzkoa, eta ahal dugunean, hori erabiltzea.

Puntuak

Aurreko aldarrieekin bezala –diafragma eta abiadura–, puntuetan banatzen dira ISO balioak ere. Hau da, pasatzen garenean ISO 100etik ISO 400era, bi puntu igo dugu gure sentsorearen sentikortasuna, eta, berez, bi argi-puntu gehiago jasoko ditugu. Tarteko eskalak ere badira, kameran arabera, batzuk pauso erdia eta beste batzuk pausoak herenetan markatuko dituzte:

ISO100 - ISO125 - ISO160 - ISO200 - ISO250 - ISO320 - ISO400 - ISO500 - ISO640 - ISO800 - ISO1000 - ISO1250 - ISO1600 - ISO2000 - ISO2500 - ISO3200.

Zarata digitala

Argi gutxi dagoenean, eta aukera gehiagorik ez badago, esan dugunez, ISOa igoko dugu, honek dakarren arazoarekin: gure argazkietan zarata digitala agertzen hasiko da.

Zarata hori zergatik sortzen da? Gure sentsorearen seinalea bortxatuz lortzen dugulako bere sentikortasuna igotzea, eta, horrekin, seinalea apurtzen dela esan genezake; zenbat eta bortxatuago orduan eta zarata gehiago.



Horregatik da hain garrantzitsua jakitea zein den gure kameraren oinarritzko ISOa, eta ahalik eta gutxien igotzea, behar beharrezkoa ez bada.

Kamera bakoitzean sentsorea ezberdina denez, proba batzuk egin beharko ditugu, jakiteko zein den gure gehieneko ISO erabilgarria. Horretarako, atera argazki berdina, tripode batean ahal bada, eta argi gutxirekin hobe, eta joan aldatzen ISOa (beti ere beste balioak egokituz, fotometroa 0-an mantentzeko). Hasi zuen minimotik, eta igotzen joan. Gero, ikusi ordenagailuan argazkiak, eta baloratu zein den ISO maximoa: aztertu zenbat zarata duten ISO altuko argazkiek, eta aukeratu zuen topea. Horrela, ISOa igo behar duzuen, beti jakingo duzue zenbatera igo ahal izango duzuen argazkia kaxkarregia izan ez dadin.

Hurrengo hilabetean:

Koloreak eta beren erabilera


Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:






Txoriak Zenbat txori ikusten dituzu irudian?



Engainagarriak


Lau zatietatik bi irudi handitik hartuta daude eta beste biak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.





Espezie festa

Ez dakigu zientzialari pitzatua den ala gezurti ikaragarria, baina zoro honek espezie berriak sortu omen ditu. Nola? Abereak abereekin nahasiz eta inork ulertu ez dituen formula matematiko genetiko labirintikoen bidez, aizue. Batere kolorerik gabeak atera zaizkio, ordea. Margotu itzazu zuk.



Itzalak

Lotu itzal bakoitzari bere izena.



Etzikaramu

Egingo dizut, nahi baduzu, gaur, bihar, etzi, etziluma, etzikaramu». Esaldi bitxia testu bat hasteko, ezta? Bada esaldi hori, gaurko grafiara ekarrita, 1596an **jasoko** esalege edo atsotitz ederra da (*Beyçut nay baoçu, / gaur, biar, ezi, eziluma, ezicaramu*), eta haren bidez ikas dezakegu euskaraz gaurtik aurrerako lau egunek izen berezitua dutela antzinatik.

Lehenengo hiru adberbioak ondo ezagunak dira (*gaur, bihar, etzi*) eta oso erabiliak **gaur egun**. Bada, gainera, *bihar* eta *etzi* berbekin osatuko esapide jator bat, etorkizunaren zentzua duena: **bihar-etzi**. Eta beste bat makulu modura erabili ohi duguna hurrengo eguna adierazteko: **biharamun**.

Etziren osteko egunari **etzidamu** esaten zaio, eta gure eskualdean *etziluma* forma ere erabiltzen da, 1596ko esalegean agertzen den berbera. Baina gaurko erregina *etzikaramu* berba dugu, gaurtik aurrerako laugarren eguna adierazteko. Polita ez ezik, ekonomikoa ere bada; **kontizu**, albo erdaretan-eta hainbat hitz behar dira ideia bera adierazteko (*dos días después de pasado mañana, deux jours après après-demain*).

Eta atzera begira jarritz gero, zer dugu? *Atzo, herenegun...* zerrenda laburtxoagoa atera zaiagu. Baina *herenegun* hitzak **lorratz** interesgarria **damaigu**. *Herenegun* hitz elkartu garbia da (*heren + egun*). Eta *heren* hitzaren lekuan *laurden* ipiniko bagenu, *laurdenegun* sortuko litzateke? Bingo! *Laurdenegun* hitza dokumentatuta daukagu, Orotarikoaren arabera, erronkariera, zuberera eta goi-nafarrera euskalkietan.

Eta laurdenegunetik atzera, zer? RM Azkuek *Ardi galdua* eleberrian *laurdenegun-atzetik* erabili zuen (*el día anterior a transanteayer*).

Laburbilduz, hauxe dugu egunen hurrenkera euskaraz, iraganetik geroaldira:

Laurdenegun-atzetik (orain dela lau egun) -> *laurdenegun* (orain dela hiru egun) -> *herenegun* (orain dela bi egun) -> *atzo* -> **gaur/egun** -> *bihar* -> *etzi* (bi egun barru) -> *etzidamu/etziluma/etzilimo* (hiru egun barru) -> *etzikaramu* (lau egun barru).

Erabil ditzagun erruki barik!!! ◀

Berba azoka

Jasoko

Jasotako, jasoriko, jaso. Ohiko erabilera gure eskualdean.

Adibidez: *Lagunak ekarriko ardoa*.

Gaur

Egun. Gauden egunean, egun honetan. Etimologikoki *gau + haur* omen da jatorria, gau honetan, alegia.

Gaur egun

Aktualitatea adierazteko esapidea. Semantikoki, ingeleseko *nowadays* formaren parekoa. Gure artean oso ezaguna Euskal Telebistako albistegi baten izena denez gero.

Bihar-etzi

Bihar edo etzi, etorkizunean, geroan. Adibidez: *Ikasketa horrek ez dauka bihar-etzirik* (etorkizunik).

Biharamun

Aipatzen den egunaren ondotik datorren eguna. Etimologikoki *bihar + egun* ei da jatorria.

Etzidamu

Etzikoaren hurrengo egunean. Etimologikoki *etzi + biharamun* omen da jatorria. Jatorri berekoak ei dira Uribe Kostan erabiltzen den *etziluma*. Bai eta honen aldaera den *etzilimo* ere.

Kontizu

Kontu egizu, atera kontuak.

Lorratz

Zantzu, aztarna, seinale, aztarren.

Damaigu

Ematen digu.



hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa Non dago?

Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko hiru lanez osatutako liburu-sorta irabaz dezakezu.

Hamar urtetik gorako umeentzako egokiak diren hiru ipuinez osatutako liburu-sorta irabazi gura baduzu, apirilaren 25a (domeka) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.



Sariak

Izaroko altxorra



Iñaki Frierak idatzia, XVI. mendearen pirata-altxorren inguruko kontakizun paregabea.

Jauregiko sekretua



Maribel Aiertzaren kontakizun misteriotsua, 10 urtetik gorako umeentzat aproposa.

Sekretuen 11 zaporeak



Istorio honetako protagonistak sekretu handi bat gordetzen du. Gai izango da jakiteko zer zapore duen?

Zozketa Begiko-ko liburuak eskura!

Zubia-Santillanaren eskutik, Begiko haur eta gazte literaturako proiektuaren katalogoko liburu aparta bi zozkatuko ditugu oraingoan. Horiek biak eskuratu gura badituzu, ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, apirilaren 25a (domeka) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona (adierazi zein otzara-mota irabazi gura duzun): hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.



Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



Etxean jaso nahi baduzu

egin zaitez **HIRUKA**lagun!



944 911 337 | 688 812 368 | administrazioa@hiruka.eus

